

# URDULIZKO ESKOLAZ KANPOKO JARDUERETAN EUSKARA SUSTATZEKO PLANGINTZA

**HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroa 2005-2006**

Jone Agirregoihoa

## AURKIBIDEA

### 1.- LABURPENA

### 2.- SARRERA

2.1.- URDULIZI BURUZKO DATU OROKORRAK

2.2.- BIZTANLERIAREN INGURUKO DATUAK

2.3.- EUSKARAREN EGOERA URDULIZEN

2.3.1.- HAZKUNTZAK: BIZTANLERIA/EUSKALDUN KOPURUA

2.3.2.- HIZKUNTZA-GAITASUNAREN AZTERKETA:

ORAIN ARTEKO PROGRESIOA/ HEMENDIK AURRERAKO  
JOERA.

2.3.3.- AMA-HIZKUNTZA ETA ETXEKO HIZKUNTZA.

2.3.4.- ERABILERA.

2.3.5.- HEZKUNTZA ETA UMEEN HIZKUNTZA GAITASUNA.

2.4.- ESKOLAZ KANPOKO ESKAINTZAREN AZTERKETA.

### 3.- METODOLOGIA

3.1.- PLANGINTZAREN ZEHAZTASUNAK

3.1.1.- OINARRIAK

3.1.2.- PLANGINTZAREN AURRE-PAUSUAK

3.1.3.- TALDEAN GARATUKO DEN LANA

3.2.- EMAITZEN EBALUAZIOA NOLA EGIN

3.3.- ARAU OROKORRAK ETA KRONOGRAMAK

3.3.1.- ARAUAK

3.3.2.- KULTUR ETXEKO KRONOGRAMA

3.3.3.- IPURTATS TALDEARI BURUZKO OHARRAK ETA KRONOGRAMAK

### 4.- ERANSKINAK

I ERANSKINA: AURKEZPEN TESTUA.

II ERANSKINA: UMEEI EGITEKO GALDEKETA.  
BALORAZIO IRIZPIDEAK.

III ERANSKINA: GURASOEI EGITEKO GALDEKETA.  
BALORAZIO IRIZPIDEAK.

IV ERANSKINA: HASIERAKO FITXA

V ERANSKINA: BAJA EMATEKO FITXA

## 1.- LABURPENA

Egitasmoaren helburua **Urdulizko eskolaz kanpoko jardueretan Euskara sustatzeko plangintza** bat diseinatzea izan da.

Lehenengo eta behin, udalerritari buruzko datuak jaso ditut, egoeraren diagnosia egin ahal izateko. Horretarako bi arlo aztertu ditut: batetik euskararen egoera eta bestetik eskolaz kanpoko jardueretan dagoen eskaintza.

Hurrengo pausua metodologia zehaztea izan da, eta hor pausu desberdinak eman behar direla adierazi dut: ezertan hasi baino lehen, herritarrek planteatzen den lanaren zergatia, helburua eta planak berak eskatzen duen inplikazioa argi eduki behar dituzte, eta hori ziurtatzeko zenbait egiteko planteatu ditut.

Alderdi guztien konpromezua ziurtatuta, begiraleen lana definitzen saiatu naiz, eta lan hori modu egokian betetzeko tresna erabilgarri batzuk proposatu ditut: grabazioak, egunerokoa, behaketa zuzena...

Azken pausua emaitzen azterketa egitea izango litzateke, hau da, hartutako datu guztiekin ondorioak ateratzea, ekintzak birplanteatzeko, aldatu beharrekoak egokitzeko eta ondo dagoena sendotzeko, baina hori plangintza martxan jartzekotan bakarrik egin ahal izango da.

## 2. - SARRERA

Gaur egun Euskal Herriko umeen artean ohikoa da eskolatik irten eta gero bestelako ekintzekin betetzea arratsaldeko orduak. Horrek, zer esanik ez, eragina du euren heziketan eta egunerokotasunean. Asko eta asko dira euskarazko eskaintza duten elkarteak, eta asko dira ere eskaintza horretan parte hartzen duten umeak. Baina jarduerak euskaraz eskaintzeak ez du ziurtatzen bere osotasunean euskaraz garatzen direnik. Umeen arteko harremana euskaraz garatzen da? Ezin hori ziurtatu, ikastoletan edo, orokorrean D ereduan ikasten duten umeek euren artean gaztelaniaz parra-parra hitz egiten dutenean, klasean edo irakasle/arduradun baten aurrean ez dauden gehienetan.

Hori guztia konplikatua go bihurtzen da baliabide gutxi daudenean, biztanleriaren zati handi bat erdalduna denean eta ume kopurua oso handia ez denean.

Urdulizen hiru faktore horiek aurkitzen ditugu, eta hurrengo orrietan argi ikusiko denez, faktoreon konbinaketak euskararen egoera gero eta okerragoa izatea ekarri du. Horrek esan nahi du zerbait egin behar dela, esku hartu behar dela eta ahaleginak egin joera horri buelta emateko.

Egia esan behar badut, lan hau egitea planteatu nuenean ez nuen uste horrelakorik aurkituko nuenik, baina datuak ikusita, ekarpen txiki hau positiboa izan daitekeelakoan nago.

## 2.1. -URDULIZI BURUZKO DATU OROKORRAK

Urduliz Bizkaiko udalerrri txiki bat da, Uribe Kosta eskualdean. Butroi haranean dago kokatuta, bere ezker hegalean. Inguruko udalerrriak Sopela, Gatika, Plentzia, Laukiz, Berango, Barrika eta Erandio dira.

Nekazaritza erabat nagusi den inguru batean kokaturik dago Urduliz, hala ere, azkenaldi honetan aldaketa handia ari da jasaten. Horretan eragin nabarmena izan dute bertan sortutako industrietan, herriko askori ez ezik beste udalerrri eta lurralde batzuetatik etorritako langileei ere lana eman baitiote.

Zerbitzuen alorrak garrantzi handia izan ez arren, etxegintza gorakada doa gaur egun, eta horrek zerbitzu eta merkataritza arloan ondorioak ekarriko dituela pentsa daiteke.

## 2.2. - BIZTANLERIAREN INGURUKO DATUAK

EUSTATEk 2001ean egindako zentsuaren arabera, Urdulizek guztira 3.142 biztanle ditu. Herri txikia izan arren, euskaldun portzentaia, ez da hain txikia:

- Euskaldunak 1.321 (%42,04)
- Ia euskaldunak 502 (%15,97)
- GUZTIRA 1.823 (%58,01)**

**2 urteko eta gehiagoko biztanleria, lurralde-eremuaren eta euskara-maila orokorraren arabera. 2001.**

	Guztira	Euskaldunak				Ia-euskaldunak				Erdaldunak
		Guztira	Alfabetatuak	Erdizka alfabetatuak	Alfabetatugabeak	Guztira	Alfabetatuak	Alfabetatugabeak	Pasiboak	
Euskal AE	2.033.247	656.980	527.771	106.433	22.776	470.124	302.487	71.711	95.926	906.143
Bizkaia	1.097.288	273.872	214.283	48.478	11.111	272.034	185.814	34.110	52.110	551.382
Urduliz	<b>3.041</b>	<b>1.321</b>	890	247	184	<b>502</b>	338	107	57	<b>1.218</b>

\*Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak 2001

Horretaz gain, euskararen kalitatea nahiko ona dela pentsa daiteke, euskaldun gehienak alfabetatuak dira eta:

-Alfabetatuak	890 (euskaldunen %67,37)
-Erdi-alfabetatuak	247 (euskaldunen %18,69)
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.137 (euskaldunen %86,06)</b>

Baina goazen sakonago aztertzerara.

### 2.3.- EUSKARAREN EGOERA URDULIZEN

Urdulizen euskararen egoera zein den azaltzen saiatuko naiz. Horretarako faktore desberdinak aztertuko ditut:

- 2.3.1.- Hazkuntzak: biztanleria eta euskaldun kopurua.
- 2.3.2.- Hizkuntza-gaitasunaren azterketa: orain arteko progresioa/hemendik aurrerako joera.
- 2.3.3.- Ama-hizkuntza eta etxeko hizkuntza.
- 2.3.4.- Erabilera.
- 2.3.5.- Hezkuntza.

#### **2.3.1.- HAZKUNTZAK: BIZTANLERIA ETA EUSKALDUN KOPURUA**

Biztanleriaren hazkuntzari dagokionez, argi ikusten da biztanle kopurua eta euskaldun kopurua ez dela neurri berean hazi. EUSTATEk emandako datuetan oinarrituta eta Euskal Soziolinguistika Institutuak garatu duen BEGIRA tresna erabiliz, biztanlerian eta euskaldun kopuruan izan diren hazkuntzak kalkulatu ditut, eta emaitzek erakusten dute 1996-2001 tartean biztanleria euskaldun kopurua baino ia bost aldiz gehiago hasi dela: biztanleria 2,41 puntu hazi da eta euskaldun kopurua 0,51 baino ez.

URDULIZ	BIZTANLERIA		EUSKALDUNAK		HAZKUNTZAK	
	1996	2001	1996	2001	Bizt.	Eusk.
	2789	3142	1288	1321	2,41	0,51

*\*HIZNET, 9. gaia. BEGIRA*

### 2.3.2.- HIZKUNTZA-GAITASUNAREN AZTERKETA: ORAIN ARTEKO PROGRESIOA/ HEMENDIK AURRERAKO JOERA

Aurreko puntuan agertzen den datua oso kezagarria da, joera aldatzen ez bada euskararen presentzia gero eta txikiagoa izango bailitzateke udalerrian. Hurrengo urteotarako tendentzia zein izan daitekeen jakiteko, **irakurketa diakronikoa** egin daiteke eta orain arteko joera aztertu.

**>=2urteko biztanleria per udalerrria, euskara-maila eta periodo**


URDULIZ	1981	1986	1991	1996	2001
<b>GUZTIRA</b>	2556	2468	2526	2724	3041
Euskaldunak	1140	1185	1164	1288	1321
Ia-euskaldunak	314	311	325	534	502
Erdaldunak	1102	972	1037	902	1218

\* Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak 2001

Aurreko datuen arabera, 1981etik 2001era populazioak gora egin du baina euskaldunen portzentaiak beherantz joan dira. **1981**ean biztanleen %44,6 euskaldunak ziren eta %43,11 erdaldunak. **1991**n zenbakiak pixka bat baikorragoak ziren baina kontuan hartu behar da urte honetako erroldan populazioa txikiagoa izan zela (euskaldunen portzentaia %46,08ra igo zen eta erdaldunena %41,05era jaitsi) baina **2001**ean berriro okerrera egin zuten biztanle euskaldunen portzentaiak %43,43ra jaitsi baitziren. Urte horretan erdaldunak %40,05 ziren. Esan behar da ia euskaldunen portzentaiak gora egin duela etengabe urte horietan zehar: **1981**ean %12,28, **1991**n %12,86 eta **2001**ean %16,50.

Erdalduntze hori gertatzeko arrazoietakoa bat udalerririk jaso duen aldaketa ikaragarria izan da. Hasieran esan dudana bezala, Urduliz nekazari eta abeltzain herria izan da, baserri asko egon da. 50eko hamarkadaren amaieran Mekanika de la Peña lantegia kokatu zen bertan eta horrek jatorri desberdinetako langileak erakarri zituen lan egitera, batzuk EAetik kanpokoak, eta herriaren egitura aldatu egin zen. Gaur egun industrialde txiki bat dago, eta hirigintza bultzatu da udaletxetik, etxebizitza asko eraiki dira eta eraikitzen ari dira. Ondorioz, populazioan beste aldaketa garrantzitsu bat eman da, beste udalerririk batzuetako jendea etorri baita herrira bizitzera, eta datuen arabera, horietako asko ez dira elebidunak. Beraz, bi momentu horien ondorioz, herria erdalduntzen joan da.

Grafiko baten bidez argiago ikusiko da progresioa:



\* Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak 2001

Grafikoan bi zutabe nagusitzen dira: euskaldunak (alfabetatuak + alfabetatu gabekak) eta erdaldunak. Erdiko zutabeek euskaldunen eta ia-euskaldunen banaketa adierazten dute. Lehenengoak alfabetatuak, erdi-alfabetatuak eta alfabetatugabeak dira eta bigarrenak alfabetatuak, alfabetatugabeak eta pasiboak. Grafikoaren arabera 1985etik 1996ra euskaldunen kopurua erdaldunena baino nahiko altuagoa izan da. Bestalde, erdaldunen taldean gorabehera handiak egon dira 1981-1996 epean, baina 2001ean hazkuntza izugarria izan da. Euskaldunen taldean, ordea, kopuruak egonkorragoak izan dira, eta hazkuntzak motelagoak. Abiadura alde horrek erdararen garapen-hasiera ekar dezake, eta hori nolabait gelditu edo moteldu behar dugu, euskararen alde lan egin nahi badugu.

Hala, berriro BEGIRA tresna erabiltzen bada, egoera aldatzen ez bada **hemendik aurrera** zer gerta daitekeen aurrakusten dugu koadro honetan:

Urtea	URDULIZ	
	Eusk.	%
2001	1321	42,04
2002	1328	41,26
2003	1334	40,49
2004	1341	39,74
2005	1348	39,00
2006	1355	38,28

2007	1362	37,56
2008	1369	36,87
2009	1376	36,18
2010	1383	35,51
2011	1390	34,85
2012	1397	34,20
2013	1404	<b>33,56</b>

\*HIZNET,9.gaila. BEGIRA

Ez dago esan beharrik zerbait egitea premiazkoa dela, bestela galerak ez du konponbiderik izango, joera beheranzkoa baita.

Ikuspuntu hori indartuta geratzen da ama-hizkuntzaren eta etxe-erabileraren azterketa egiten badugu.

### 2.3.3.- AMA-HIZKUNTZA ETA ETXEKO HIZKUNTZA.

Ama-hizkuntzaren aldetik, hauxe ikusten dugu:

- Ama-hizkuntza euskara dutenak 977 pertsona (biztanleen %31,09).
- Ama-hizkuntza gaztelania dutenak 2.055 pertsona (biztanleen %65,40).
- Biak 81 pertsona (biztanleen %2,57)

#### Biztanleria per udalerrria, ama-hizkuntza eta periodo


URDULIZ	1986	1991	1996	2001
<b>GUZTIRA</b>	2507	2580	2787	3142
Euskara	1146	1164	1008	<b>977</b>
Gaztelania	1168	1322	1504	<b>2055</b>
Biak	163	84	256	<b>81</b>
Beste bat	30	10	19	<b>29</b>

\* Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak 2001

Horren arabera, euskaldun diren guztiek ez dute ama-hizkuntza euskara izan: 1321 euskaldun daude baina 1078k (997+81) izan dute euskara ama-hizkuntza, beraz, pentsatu behar dugu gainerakoek gero ikasi dutela (Txepetxen sailkapena



erabilia lehenengoak AB eta A motako hiztunak izango dira, eta bigarrenak BA motakoak).



\* Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak 2001

Labur azalduta, Jose María Sánchez Carriónnek (Txepetx) ikasketa motei buruzko sailkapenean bi bereizten ditu:

*"A" primarioa (hautzarokoa) eta "B" sekundarioa (kulturala, nerabegarotik gorakoa). Primarioan motibazioa, ezagutza eta erabilera berezkoak dira, eta sekundarioan induzituak.*

*Bide beretik, hiztun osoa bi ikasketa motak dituen izango dela adierazten du. AB motakoak hizkuntza hautzarokoa ikasi du eta gero kulturalizatu egin da. BA motakoak, berriz, lehenengo ikasketa sekundarioa egin du eta gero naturaltasuna lortu du. A hiztunak ez dira alfabetatuak, eta B hiztunek ez dute naturaltasunik lortu. Beraz, azken bi hauek osatu gabeak izango dira. Badago bosgarren mota bat, hizkuntza ez dakiena, O hiztuna.*

*Horretan oinarrituta, hizkuntza komunitatea definitzen duenean, erdi-erdian AB hiztunak jartzen ditu (jatorrizko hiztun kulturalizatuak) eta jarraian BA hiztunak (heldu eta gazte bertakotuak). Gero A, B eta azkenik O hiztunak.*

*(Iturria: Erize, Xabier. HIZNET 3. gaia. 83-86 or. Moldatua)*

Hiztun garrantzitsuenak ama-hizkuntza euskara dutenak eta ikasiak badira, Urdulizen kasuan bilakaera kezagarria dela argi dago, hemen ere nabarmen gutxitu baita ama-hizkuntza euskara duten biztanleen portzentaia: 1986an %45,71 ziren ama-hizkuntza euskara zutenak, eta % 46,58 ama-hizkuntza erdara zutenak.

Kopuruak ia parekoak ziren. 2001ean, ordea, euskara ama-hizkuntza dutenen portzentaia %31,09ra jaitsi da eta erdara ama-hizkuntza dutenena %65,40ra igo. Zifra ikaragarriak dira eta inplikazio handikoak. Hizkuntza komunitatearen oinarri-oinarria kolokan dago. Baina zergatik gertatu da aldaketa hori hain epe laburrean (hamabost urte)?

Atzerakada horren arrazoietakoa bat da etxean ere euskara gero eta gutxiago erabiltzen dela. Hala, euskaldun kopurua %42 izanda, **etxeko hizkuntza** euskara dutenak %16 baino ez direla ikusten da, beraz, arlo hori ahultzen doala esan daiteke, eta ondorioz, familia bidezko transmisioak dakarren aberastasun guztia galtzeko arriskuan dago.


- Etxeko hizkuntza euskara dutenak 509 pertsona (biztanleen %16,19)
- Etxeko hizkuntza gaztelania dutenak 2207 pertsona (biztanleen %70,24)
- Biak 409 pertsona (biztanleen %13,01)

#### Biztanleria per udalerrria, etxeko hizkuntza eta periodo

URDULIZ	1991	1996	2001
<b>GUZTIRA</b>	2580	2787	3142
Euskara	793	534	<b>509</b>
Gaztelania	1512	1695	<b>2207</b>
Biak	275	556	<b>409</b>
Beste bat	0	2	<b>17</b>

\* Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak 2001

Arlo honetan euskarak beherantz egin duen neurrian egin du gorantz gaztelaniak. Hala, 1991n etxeko hizkuntza gaztelania zutenen kopurua euskara erabiltzen zutenen bikoitza zen bitartean, 2001ean ia lau bider eta erdi handiagoa zen.



\* Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak 2001

Etxean ez erabiltzearen arrazoiak asko izan daitezke, baina ohikoena izaten da familiako kideren bat erdalduna izatea. Baieztapen hori argi ikusten da etxeko hiztunen tipologia ikusita. Izan ere, etxeko euskaldunen dentsitatea oso garrantzitsua da euskararen erabilerarako. Eusko Jaurlaritzak argitaratu duen *III. Mapa Soziolinguistikoaren* arabera, etxeko kideen %80 euskaldunak badira, euskara erabiltzen dute %72,3tan etxean, %17,4tan euskara eta gaztelania erabiltzen dute eta %10,3tan gaztelania. Baina euskaldunen dentsitateak behera egiten badu, (%60-%80 artean) erabilera %16,5era jaisten da, eta euskaldunen dentsitatea %60tik beherakoa bada ia ez da erabiltzen euskara. Beraz, etxean erdaldun bakar bat egoteak euskararen erabilera nabarmen jaistea ekarriko du. Horren arabera, Urdulizen eman den progresioa oso kezagarria dela esan daiteke. Azpiko koadroan ikusten den bezala, portzentaia hori duten familia kopuruak behera egin du, nabarmen gainera, azken 10 urteetan.

**Etxeko erabilera (> = 5 urte), familiako euskaldunen dentsitatearen arabera (EAE)**

URDULIZ		1991	1996	2001
<b>GUZTIRA</b>		2477	2649	2955
<b>&lt;25</b>	Euskara	0	0	0
	Euskara eta gaztelania	15	13	22
	Gaztelania	1046	970	1106
	Besterik	0	1	10
<b>GUZTIRA</b>		<b>(%42,8) 1061</b>	<b>(%37,1) 984</b>	<b>(%38,5) 1138</b>
<b>25-44</b>	Euskara	9	2	6
	Euskara eta gaztelania	42	42	35
	Gaztelania	199	278	374
	Besterik	0	0	2
<b>GUZTIRA</b>		<b>(%10,1) 250</b>	<b>(%12,2) 322</b>	<b>(%14,1) 417</b>
<b>45-59</b>	Euskara	4	2	7
	Euskara eta gaztelania	22	53	39
	Gaztelania	94	162	254
	Besterik	0	0	4
<b>GUZTIRA</b>		<b>(%4,8) 120</b>	<b>(%8,2) 217</b>	<b>(%10,3) 304</b>
<b>60-80</b>	Euskara	45	62	54
	Euskara eta gaztelania	78	160	114
	Gaztelania	67	142	251
	Besterik	0	0	0
<b>GUZTIRA</b>		<b>(%7,7) 190</b>	<b>(%13,7) 364</b>	<b>(%14,2) 419</b>
<b>&gt;80</b>	Euskara	718	454	425
	Euskara eta gaztelania	109	258	173
	Gaztelania	29	50	79
	Besterik	0	0	0
<b>GUZTIRA</b>		<b>(%34,6) 856</b>	<b>(%28,8) 762</b>	<b>(%22,9) 677</b>

\* Iturria: III. Mapa Soziolinguistikoa.2001.

Joera horrek arriskuan jartzen du euskararen eremu soziolinguistiko garrantzitsuenetako bat: familia.

Egoera hori bat dator Fishmanen *Graded Intergenerational Disruption Scale* (Belaun Arteko Etenaren Neurria) delakoren 6. mailarekin. Hona hemen Mikel Zalbidek HIZNET ikastaroan adierazitakoa:

6. maila litzateke *"Familia eta lagunartean, auzoan eta kale-bizitza hurbilean, euskararen presentzia dagoeneko egoera. Euskaldunik badago tartean, eta ez gutxi, bai zaharren artean eta bai gazteetan! Gero eta erdal itsasoan murgilduago bizi dira ordea, etxe-etxetik atera orduko...*

*Aitona-amonek, gurasoek eta seme-alabek (nola-hala, eta guztiek ez bada gehienek edo askok behintzat) euskaraz dakite, baina etxean edo auzoan, lagunarte hurbilean eta kale-bizitzan gero eta sarriago erdaraz egiten dute..."*

Beraz, zer egin behar da egoera horri buelta emateko? Euskaldun horiek erdaraz hitz egitetik euskaraz egitera eta jarrera horri eustera bultzatzeko?

*"Euskaldunak demografikoki nagusi, edo gutxienez masa batetik gorako kopuruan, diren herriak euskaldun mantentzen saiatu. Horretarako euskaraz aritzeko espazioak zenbat eta ugariagoak eta aktiboagoak izan, orduan eta errazagoa izango da euskaraz erdipurdika moldatzen direnak hizkuntza gaitasuna sendotzea eta zabaltzea."*

*(\*Iturria: Zalbide, Mikel. HIZNET 3. gaia. 48-50 or.)*

Bi paragrafo horietan jasotzen dena oso garrantzitsua da, egoera Euskal Herri osoan zabaldua dagoelako. Kontuan hartzen badugu Fishmanek bere lanean 8 maila bereizten zituela (1. mailak hizkuntza sendoa dela adierazten du eta 8.ak hizkuntza ia hilda dagoela) euskararen egoera larria agerian geratzen da. Beraz, eremu hori berreskuratzeko ahaleginak egin behar direla uste dut. Urdulizko agintariek eta herritarrek euren esku dagoen guztia egin behar dute, erantzukizuna guztiona da eta.


Dena den, datuetan dena ez da negatiboa. Alde positibo bat aurkitzekotan hauxe litzateke:

Euskaldun kopurua %25 baino txikiagoa dituzten familien portzentaiak ere behera egin duela, tarteko kopuruaren alde. Horrek ez du erabilera bermatzen baina familiak euskalduntzen doazela pentsa daiteke, eta administratiboki prozesu hori azkartzeko ahaleginak egin behar direla uste dut.

Udalak gurasoen euskalduntze prozesua bultzatzeko neurriak hartu beharko lituzke eta horren aldeko sentiberatasun kanpainak egin, hau da, euskaldunak irabazteko proiektuetan jarri beharko litzateke indarra, familia barruko harremanak euskaraz garatzea posiblea izan dadin. Biztanleriari jakinarazi behar zaio ez dela nahikoa umeak euskarazko ereduera bidaltzearekin, etxean ere ziurtatu behar direla erabilera esparruak, ohiturarik ez badago oso zaila delako harreman hizkuntza gaztelaniatik euskarara aldatzea.

Grafiko batera eramaten badugu, euskaldunen dentsitatea %25 baino txikiagoa duten familien artean bat ere ez dela euskara hutsean aritzen etxean ikusiko dugu. Gutxi batzuk biak erabiltzen dituzte, baina hain kasu gutxitan izanda ez da adierazgarria inondik inora.

Bigarren taldean (%25-%44) euskara zertxobait erabiltzen dela esan daiteke baina Otik hurbil dago, gaztelania, ostera, berriro ere gero eta gehiago.



Hirugarren taldean (%45-%59) nahiz eta ia erdiak euskaldunak izan, ez da aldaketarik ikusten aurreko kopuruekin konparatuta, beraz, argi ikusten da horietan guztietan euskara ez dela erabiltzen etxeetan, hau da, berdin dela etxeko kideen artean ia euskaldunik ez egotea edo erdiak euskaldunak izatea, etxeko hizkuntza gaztelania izango da.

Azken bi taldeetan egoera zertxobait aldatzen da. %60-%80 tartean oraindik ere gaztelania da nagusi, baina euskara hutsean aritzen diren familia

batzuk daude (54 pertsona inguru) eta beste multzo batek (114 pertsona inguru) bi hizkuntzak erabiltzen ditu. Azkenik, argi ikusten da %>80 denean bakarrik ziurtatzen dela euskararen erabilera, talde horretan bakarrik nagusitzen da euskara. Dena den, Urdulizen 1991ean 718 pertsona inguru ziren euskara erabiltzen zutenak etxean eta 29 gaztelania, baina 2001ean egoerak txarrera egin du eta  $\pm 425$  pertsona dira euskara erabiltzen dutenak eta  $\pm 79$  gaztelania erabiltzen dutenak. Datu horrek Urdulizko gizartean euskara bere lekua galtzen ari dela adierazten du.

### 2.3.4.- ERABILERA

Horrek guztiak, zer esanik ez, erabilera orokorrean gogor eragiten du, are gehiago Urduliz bezalako herri txiki batean, baliabide gutxi daudelako, eta zailagoa delako joera horiei aurre egiteko neurriak hartzea. Azpiko koadroan *erabilera isotropikoa* aztertzen da, 2001eko datuetan oinarrituta:

ERABILERA ISOTROPIKOA						
2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
12,34	11,83	11,34	10,88	10,43	10,00	9,59

*\*Euskal Soziolinguistika Institutua: Bat aldizkaria*

Erabilera isotropikoa "*taldean edo multzoan itxaron daitekeen erabilera maila da, hau da, talde batean, kasu honetan Urduliztarrak, euskaldunak eta erdaldunak nahasturik daudenean, hiztun guztien arteko ahozko hizkuntza-harremanetan itxaron daitekeen euskararen erabilera maila*"

*(\*Iturria: Erriondo, Altuna eta Suberbiola. HIZNET, 9. gaia. 27. or.)*

Goiko koadroaren arabera, espero daitekeena da euskara pixkanaka-pixkanaka galtzea, gero eta gutxiago erabiliko delako. Esan behar da hauek estimazioak direla, baina errealitate bihur daitezke ezer egiten ez bada.

Beste alde batetik, erabiltzeko hizkuntza jakitea eta hitz egiteko erraztasuna izatea ezinbestekoa dela denok dakigu, eta horretan irakaskuntzak zeresan handia dauka.

### 2.3.5.- HEZKUNTZA ETA UMEEN HIZKUNTZA GAITASUNA

Urdulizen kasuan hezkuntzari buruzko datu gutxi daude eskola bakarra dagoelako, Elortzakoa. Eskola publikoa da eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza eskaintzen ditu, B eta D ereduetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa egitera herritik kanpoko eskoletara joan behar dute. Eskola horretan A eredia pixkanaka-pixkanaka desagertu egin da, B eredia gutxitzen joan da eta D eredia indartzen. Hona hemen datuak:

**Biztanleria per udalerrria, ikasketa eredia eta periodo**

URDULIZ	1995-96	1997-98	1999-00	2001-02	2003-2004
A eredia	34	0	0	0	0
B eredia	92	55	27	13	3
D eredia	0	23	69	88	104
<b>GUZTIRA</b>	<b>126</b>	<b>78</b>	<b>96</b>	<b>101</b>	<b>107</b>

\*Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak 2001

Ikusten denez ume kopurua oso txikia da. 0-14 adin tartea hartzen badugu, eta konparaketa egiten badugu, eskolan egoteko adina duten umeen laurden bat inguruk baino ez du ikasten Elortzako eskoletan: 2001ean adin tarte horretako 434 ume zeuden eta eskolan 101 baino ez zegoen. 0-3 eta 12-14 artekoak kenduko bagenitu ere, kopurua antzekoa izango zela uste dut.

**Biztanleak, sexuaren eta adinaren arabera udalerrrika**

URDULIZ	1991	1996	2001
<b>GUZTIRA</b>	<b>2580</b>	<b>2787</b>	<b>3142</b>
<b>0-4</b>	98	115	187
<b>5-9</b>	131	97	136
<b>10-14</b>	203	142	111
	<b>432</b> (biztanleen %16,74)	<b>354</b> (biztanleen %12,70)	<b>434</b> (biztanleen %13,81)
<b>15-19</b>	246	218	163
<b>Ume eta gazte kopurua, guztira</b>	<b>678</b> (biztanleen %26,27)	<b>572</b> (biztanleen %20,25)	<b>597</b> (biztanleen %19)

\*Iturria: Euskal Herriko Hizkuntza-Adierazleen Sistema(EAS)



Interesgarria litzateke jakitea udalerritik kanpo ikasten duten umek zein eredutan egiten duten. Adibidez, ume asko Sopelako Ikastolara joaten dira, Haurtzaindegitik Batxilergoa amaitu arte egiteko, baina ez dauzkat datu zehatzak.


Dena den, esango nuke ume gehienek euskarazko ereduetan ikasten dutela. Gutxienez hori pentsa daiteke umeen hizkuntza-gaitasunari erreparatuz gero:

**Hizkuntza-gaitasuna 5-19 urte arteko biztanleengan, udalerrrika**

		1991	1996	2001
<b>URDULIZ</b>				
<b>GUZTIRA</b>		<b>2580</b>	<b>2787</b>	<b>3142</b>
5-9	Elebidunak	62	69	98
	Elebidun hartzaileak	29	15	18
	Erdaldun elebakarrak	40	13	20
<b>GUZTIRA</b>		<b>131</b>	<b>97</b>	<b>136</b>
10-14	Elebidunak	94	97	79
	Elebidun hartzaileak	34	38	14
	Erdaldun elebakarrak	75	7	18
<b>GUZTIRA</b>		<b>203</b>	<b>142</b>	<b>111</b>
15-19	Elebidunak	102	121	100
	Elebidun hartzaileak	42	51	34
	Erdaldun elebakarrak	102	46	29
<b>GUZTIRA</b>		<b>246</b>	<b>218</b>	<b>163</b>

*\*Iturria: Euskal Herriko Hizkuntza-Adierazleen Sistema(EAS)*

Hurrengo orrialdean dagoen grafikoari begiratzen badiogu, gaur egun 5-19 arteko ume gehienak elebidunak direla ikusten dugu (%80). 1991tik 1996ra euskarak aurrerakada nabarmena egin zuen, eta aurrera pausu hori bat etorri zen "A" ereduaren Elortzako eskolatik desagertzeko prozesuarekin. Dena dela, 1996tik 2001era 5-14 tarteko erdaldun elebakarren kopuruak pixka bat gora egin du berriro ere (%6 izatetik %11 izatera pasatu da).



\*Iturria: Euskal Herriko Hizkuntza-Adierazleen Sistema(EAS)

Horren arrazoi nagusia biztanleriaren hazkuntzan bilatu behar da, eta migrazio mugimenduak aztertzen baditugu inmigrazioa nahiko esanguratsua izan dela ikusten da. Hala, EAetik kanpo 1991-1995 artean 44 pertsona etorri ziren Urdulizera, baina 1996 eta 2001 artean 123 izan ziren etorkinak. EAetik kanpokoak izanda euskararekin inolako harremanik izan ez dutela pentsa daiteke, beraz, eskolan egoteko adina duen umerik izanez gero, gaztelaniazko eredueta matrikulatzea normala litzateke.

Horretaz aparte, barne-migrazioa ere handiagoa izan zen bigarren aldian (1991-95 bitartean 487 pertsona eta 1996-2001 bitartean 884). Horietako batzuk euskaldunak izan ziren (lan honetako 4. orrialdean azaldu den bezala, euskaldunen hazkuntza 0,51 izan da, nahiz eta kontuan hartu behar dugun kopuru horretan etorkinak zein bestelakoak biltzen direla).

Biztanleen emigrazioa ere kontuan hartu behar da: 1991-1995 bitartean 393 pertsona joan ziren herritik, beraz migrazio-saldoa +138 da aldi horretarako.

1996-2001 bitartean 568 pertsona joan ziren Urduliztik, beraz migrazio-saldoa +439 da bigarren aldirako.

**Migrazioak per udalerrria, mota, sexua eta periodo.**

URDULIZ	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001
<b>GUZTIRA</b>	<b>2580</b>					<b>2787</b>					<b>3142</b>
<b>Inmigrazioak</b>	8	14	4	10	8	10	13	12	22	22	44
<b>Emigrazioak</b>	15	22	1	13	13	10	11	17	20	17	21
<b>Helburuko barne-migrazioa</b>	77	92	76	132	110	116	122	176	162	187	121
<b>Jatorrizko barne-migrazioa</b>	41	66	56	89	77	62	114	79	98	106	109

*\*Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak 2001*

Zenbaki horiek erakusten duten hazkuntzak ondorioak izan ditu gaur egun arteko hizkuntza-harremanetan, eta hemendik aurrerakoetan ere izango ditu, hazkuntza prozesua ez delako oraindik amaitu ez Urdulizen ez eta inguruko herrietan ere.

**Ondorio modura zera adierazi nahi dut:**

Aurreko datu guztiak irakurri ondoren Urdulizen euskararen egoera nahiko larria dela esan daiteke. Nahiz eta euskaldunen portzentaia nahiko altua izan, egoera hori arriskuan dago faktore desberdinengatik:

Batetik, herriak jaso dituen aldaketen eragina nabarmena izan da, bai garai batean industria garrantzitsu bat bertan kokatzeak ekarri zuen migrazioagatik, eta bai gaur egun hirigintza bultzatzeak sortutako biztanleria-igoeragatik herria erdaldunduz joan delako.

Bestetik, familien tipologia ere ez du laguntzen eta hori konpontzeko modu bakarra euskalduntze prozesua bultzatzea da. Horrek, jakina, denbora eskatzen du, eta dirua, baina batez ere prozesua hasi eta amaitzeko borondatea.

Gainera, etxean erabiltzen ez bada, ama-hizkuntzaren portzentaia ere atzera egiten jarraituko du eta umeak eskolan euskaldundu beharko ditugu.

Azkenik, egindako diagnosiaren ondorioz argi geratu da hemen proposatu nahi dudana plangintza egingarria dela, ume euskaldunen portzentaia altua delako.

Azpiko koadroan biltzen dira Urdulizen euskara garatzeko aurkitzen ditugun aldeko eta kontrako faktoreak:

Aldeko faktoreak	Kontrako faktoreak
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskaldun kopuru altua eta euskara maila ona.</li> <li>- Ume eta gazteen %80 elebidunak dira.</li> <li>- Kultur Etxearen eskaintza berezituia.</li> <li>- Talde finkoak eta iraunkorrak ahalbidetzen dituzten ekintzak eskaintzen ditu Kultur Etxeak.</li> <li>- Guraso gehienek seme-alabak euskarazko ereduetan matrikulatzen dituzte.</li> <li>- Eskolan B eta D ereduak baino ez dira eskaintzen.</li> <li>- Euskaldun hartzaileen taldea pixkanaka-pixkanaka hazten doa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erdaldun kopurua euskaldunena baino azkarrago hazten da.</li> <li>- Ume erdaldun elebakarren igoera 1996-2001 artean.</li> <li>- Euskarazko eskaintzak ez du ziurtatzen umeen arteko harremana euskaraz izatea.</li> <li>- Baliabide gutxi. Euskara teknikaririk ez dago udalean.</li> <li>- Barne- eta kanpo-inmigrazioaren igoera.</li> <li>- Euskaldun dentsitate egokia duten familiak gero eta gutxiago dira.</li> <li>- Ama-hizkuntza eta etxe erabilera euskara dutenak gero eta gutxiago dira.</li> </ul>

Goian esandakoaren osagarri, Kike Amonarrizen hitzak ekarri nahi ditut atal honetara, oso ondo adierazten baitute gure gizartean gertatzen ari dena:

*"Gaur egungo ia gazte guztiek euskara ulertzen dute, gehienak hitz egiteko gai dira eta gazte euskaldun guztiak alfabetatuak dira, beraz, ez dago oztoporik ume eta gazteei zuzendutako ekintzak euskara hutsez garatzeko.*

*Erabilpenari dagokionez, duela hamarkada gutxi arte herri euskaldunak euskaraz bizi ziren, umeak euskaraz sozializatzen ziren. Orain, berriz, euskararen ezagupena eta erabilera zabaldu egin da, baina dentsitatean atzera egin du, gutxiago dira euskaraz bizi direnak. Erdal erreferentzien presentzia oso indartsua da, baina euskaraz bizi diren familietan ere. Arriskua da asinaturizazioa eta eragin kaltegarria euskarekiko motibazioetan.*

*Haur eta gazte euskaldun horien artean, gehienek erdara euskara baino hobeto menperatzen dute, eta gehienek ia beti edo gehienetan erdaraz hitz egiten dute.*

*Motibaziori dagokionez, gehiengoak hizkuntzarekiko jarrera positiboa du, jarrera guztiz negatiboa duten gazte taldeak ere badaudela dakigun arren. B edo D ereduetan ikasi arren, euskal mundutik oso urruti dauden gazteak dira."*

*(Iturria: Amonarriz, Kike. HIZNET, 12. gaia. 12,13 eta 14. or. Moldatua)*

Beraz, administrazioak esku hartzen hasi beharko duela uste dut. Euskarari esparruak bermatu beharko zaizkio Urdulizen, eta etorkizuneko belaunaldiei esparru horiek ziurtatu.

Landu beharreko esparruetako bat eskolaz kanpoko jarduerak dira, eta horixe aztertzeraz noa ondoko orriotan.

#### 2.4.- ESKOLAZ KANPOKO ESKAINTZAREN AZTERKETA

Urdulizko eskolaz kanpoko jardueren eskaintza zein den ikusita, konturatu naiz gutxienez hiru multzo desberdin daudela: kirol taldeen eskaintza, Hípica Urduliz enpresak egiten duena eta azkenik Kultur Etxeak eta Ipurtats Taldeak egiten dutena.

Kirol talde bi aritzen dira umeekin lanean: Club Balonmano Urduliz taldea eta Urdulizko Eusko Pilota Taldea.

**Club Balonmano Urduliz** taldean oinarri-eskubaloia irakasten dute, bai herrian bertan eta bai inguruko zenbait ikastetxetan: Larramendi Ikastolan, Gorlizen, Zipiriñe ikastetxean eta Plentziako Eskualdeko Eskolan. Jarduerak irailetik maiatzera irauten du. Astero 3 ordu ematen dituzte entrenatzen eta denbora horri asteburuko partida gehitu behar zaio.

Kategoriaren arabera, taldeak honela banatzen dira:

- Benjaminak (97-98 urteetan jaiotakoak)
- Kimuak (95-96 urteetan jaiotakoak)
- Haurrak (93-94 urteetan jaiotakoak)

Hiru horiek eskolako zikloan sartzen dira. Adin horretatik aurrera, kadeteak direnean, liga federatuan jokatzen dute. Aurten 91-92 urteetan jaiotakoak izango dira kadete kategoriakoak.

Urdulizen kasuan, herrian bertan "kimuak" kategoriako bi talde daude 20 bat umerekin, hau da, 10 ume talde bakoitzean. Bi talde horietan begirale finko bat eta bi laguntzaile aritzen dira.

Hasiera batean gizonezkoen taldeak baino ez zeuden, baina pixkanaka-pixkanaka nesken partaidetza bultzatzen ari dira -aipatutako bi taldeetan neskak eta mutilak daude- eta hemendik bost urtera emakumezkoen taldeak sortzeko asmoa dute. Hori oso interesgarria da, jarduera erabat euskaldunduz gero, euskaraz bizitzeko esparru hori nesken eskura ere egongo delako.

Euskarari dagokionez, eskubaloi klub honek oso jarrera ona agertzen du, batetik, komunikazio guztiak hizkuntza ofizial bietan egiten dituelako, eta bestetik, begiraleak ere euskara ikasten ari direlako.

Adierazi dutenaren arabera, begiraleak euren eskoletan euskara erabiltzen ahalegintzen dira. Hala ere, bai terminologiak berak arazoak sortzeagatik, bai ume guztiak euskaldunak ez izateagatik (10 gutxi gorabehera), zenbaitetan gaztelania erabili behar izaten dute.

**Urdulizko Eusko Pilota Taldean** 8 eta 13 urte bitarteko lau talde daude, guztira 10 ume. Kasu honetan denak dira mutilak.

Astero lau edo bost orduz entrenatzen dira, batzuetan gehiago, eta asteburuetan partida jokatzen dute.

Euskararen erabilerari dagokionez, aldeko jarrera dutela esan daiteke: partidak iragartzeko egiten dituzten kartelak euskara hutsean ateratzen dituzte eta begiralea euskalduna da.

Hala ere, datu kezkarri bat jaso dut: bai begiralea eta bai umeak euskaldunak dira baina, antza denez, beti ez dute euskara erabiltzen euren artean. Kasu honetan jarduera euskara hutsean garatzeko baldintza egokiak ematen dira eta egoera hori aprobetxatu behar da. Beraz, pilota eskolako arduradunekin hitz egin behar dela eta esparru txiki horretan euskara erabiltzeak duen garrantzia ikusarazi behar zaiela uste dut; are gehiago Urdulizen euskarak duen bilakaera ikusita.

Azkenik, oraindik martxan ez dauden arren, palako eskolak antolatzen ari dira. Horien jarduna hurrengo batean aztertu beharko da, baina interesgarria izango litzateke hizkuntza irizpideak kontuan hartzea eskaintza berri horretan.

**Hípica Urduliz**-ek, bere aldetik, badauka klaseak euskaraz ematen dituen irakasle bat, baina ez dute publiziterik egiten, beraz, bezeroek hala eskatzen badute bakarrik ematen dira klaseak euskaraz. Bezero gehienak ez dira Urdulizekoak, beste herri eta probintzia batzuetatik etorriak baizik, beraz, hemen eragiteak herriko umei ez lieke onura handirik ekarriko. Dena den, Elortzako eskolako ume batzuk kurtsoan zehar Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagundutako ekintzak garatzera joaten dira, baina, antza denez, kopurua ez da adierazgarria.

Azkenik Kultur Etxea eta Ipurtats Aisialdi Taldea ditugu. **Kultur Etxeak** euskarazko eskaintza zabala du eta ekintzak herriko gunes desberdinetan garatzen ditu: Kultur Etxean, eskolan, kalean eta kiroldegian. Hizkuntzak bereizten dituzte euren eskaintzan, hortaz, parte hartzen duten umeek badute euskarazkoa hartzeko aukera. Esan behar da ekintza horietako batzuk Mankomunitateko

euskara zerbitzuaren eta Udalaren laguntzarekin antolatzen dituztela (Olentzaroaren inguruko tailerrak, udalekuak eta ipuin lehiaketa, besteak beste).

Azkenik **Ipurtats Aisialdi Taldea** dugu. Talde horrek mota askotako ekintzak burutzen ditu urtean zehar. Ez du urte osoko ekintzarik antolatzen, gehienez ere aste betekoak izaten dira. Ez dute euskarazko eta gaztelaniazko eskaintza bereizten eta ohiko hizkuntza gaztelania da, nahiz eta ume euskaldunekin euskaraz hitz egiten duten.

Egoera orokorra hori izanik, Egitasmo honen helburua Ipurtats Aisialdi Taldeak eta Kultur Etxeak Urdulizen eskaintzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerak aztertu eta euskaraz gara daitezen plangintza bat diseinatzea izango da. Hala ere, Ipurtats Aisialdi Taldearen kasuan, komenigarria litzateke ekintzen iraupena luzatzea, talde finkoak sortu ahal izateko eta eraginkortasuna lortzeko. Horretarako ezinbestekoa da Udalaren inplikazioa, kostua bere gain har dezan, ekintza batzuk bikoiztu egingo liriateke eta (bi hizkuntzetan eskaini).

Koadroan laburbildu dut Urdulizen dagoen eskaintza:

ERAGILEA	EKINTZA	*TALDE MOTA	TALDEAK/ SAIOAK	HIZKUNTZA	UME KOPURUA	ADIN TARTEA	IRAUPENA
Hípica Urduliz	Zaldiketa	Txikiak eta ertainak	3 edo 4 talde egunero	%90 gaztelaniaz	Zehaztu gabe	8-14 urte bitartekoak gehienak (%70)	Egun 1 edo 2 astero. Hilabeterako edo ikasturte osorako.
Club Balonmano Urduliz	Eskubaloia	Ertainak	2 talde	Ahal den neurrian euskaraz. Hitz teknikoak eta holakoak gaztelaniaz.	20 ume. 10 talde bakoitzean	Kimuak. (10-11 urte.)	3 ordu astero gehi partida larunbatetan. Irailetik maiatzera.
Urdulizko Eusko Pilota Taldea	Esku pilota	Txikiak	4 talde	Ia beti euskaraz.	10 ume	8-13 urte bitartekoak	Astero 4 edo 5 ordu entrenatzen gehi partidak.
Kultur Etxea	Ipuinak (Kultur Etxean)	Ertainak eta handiak	4 saio 2 saio	Euskaraz Gaztelaniaz	129 (+ 100 eskolatik) 100	3-12 urte bitartekoak	

Eskolaz kanpoko jarduerak Urdulizen

	Antzerki saioak (Kultur Etxean, kiroldegian eta eskoletan)	Handiak		Euskaraz	440	3-12 urte bitartekoak batez ere	
	Txotxongilo saioak	Handiak		Euskaraz	180		
	Tailerrak Kultur Etxeko lokaletan:  Pintura  Antzerkia  Eskulanak	Ertainak	Guztira 6 talde:  3 talde  Talde 1  Talde 1 edo 2		Pintura: 30 ume urtean zehar.  Antzerkia: 10 ume urtean zehar  Eskulanak: 160 (hile bitan, larunbatero).		Urriaren hasieratik maiatzaren amaierara.
	Trikitixa	Banakakoa					Urriaren hasieratik maiatzaren amaierara
	Antzerki tailerra (eskoletan)	Handia	2 talde	Euskaraz	62		
	Ipuin lehiaketa			Euskaraz	170		
	Umeentzako animazioa udan (kalean)	Handia		Euskaraz	100 eta 400 bitartean		
	Ludoteka ibiltaria (kalean)	Handia		Euskaraz	25		
	Euskaraz olgetan (kalean, kiroldegian)	Handia	3 saio	Euskaraz	600		
	Hondartzako ludoteka (kalean, kiroldegian)	Handia	2 saio	Euskaraz	400		



Eskolaz kanpoko jarduerak Urdulizen

	Udaleku irekiak. (eskoletan)	Handia	2 talde	Euskaraz	132		
	"Olentzero, nik nahi nuke" tailerrak (eskoletan)	Handia	2 talde	Euskaraz	99		
	Olentzerori gutuna			Euskaraz			
	Bestelakoak (hizkuntza zehaztu gabe): Zinema kalean (udan zehar 10 pelikula), erakusketak, kartel lehiaketa, Gabonetako jolas parkea, Olentzero herritik, jardunaldi botanikoak..						
<b>Ipurtats Aisialdi Taldea</b>	Urtarrilak 5 eta 6: Errege Kabalgata	Handia			40 inguru		
	Irteera mendira	Handia			Autobus bete		Egun bat
	Aste Santuko kanpamentua	Handia			40 inguru		4 edo 5 egun
	Aste kulturala. Ekintza desberdinak	Handia			60 inguru begiraleak eta gurasoak barne		Ekainaren azken astea
	Urdulizko jaietan tailerrak	Handia			60 inguru		
	Irteera Gasteizera patinatzerako joateko	Handia			Autobus bat 50 pertsona inguru		Azaroan egun bat
	Olentzero	Handia			40 inguru		Egun bat
	GUPera txangoa	Handia					
	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Ekintza gehienak adin desberdinetako umeak nahastuz burutzen dituzte.</li> <li>* Ohizko hizkuntza gaztelera izaten da, nahiz eta ume euskaldunekin euskaraz aritu.</li> <li>* Gaur egun taldearen berritze prozesu batean daude eta 7 begiralek hartzen dute parte.</li> </ul>						

*Oharra: koadroan agertzen diren kopuruak gutxi gorabeherakoak dira.*

**\*Talde motaren barruan hiru multzo desberdinu ditut:**

Txikia: 2-5 partaide

Ertaina: 6-10 partaide

Handia: >10

### 3.- METODOLOGIA

Aurreko koadroan ikus daitekeenez, alde handia dago Kultur Etxearen eta Ipurtats Aisialdi Taldearen arteko eskaintzan. **Kultur Etxeak** eskaintza zabala du euskaraz eta bi motatako ekintzak antolatzen ditu: tailerrak eta egun bakarreko edo egun gutxiko saioak (ipuin kontalariak, Euskaraz Olgetan, Olentzaro...). Tailerrek ikasturte osoko iraupena dute, gainera toki finko batean garatzen dira eta horrek guztiak taldeak ere nahiko finkoak eta iraunkorrak izatea ekartzen du. Bestalde, egun bakarreko saioetan hizkuntza bereiz egiten da. Hortaz, Kultur Etxearen kasuan egin beharreko lana izango da euskaraz dagoen eskaintza benetan hizkuntza horretan garatzen dela ziurtatzea.

**Ipurtats Taldeak**, ostera, ez du ikasturte osorako eskaintzarik egiten, beraz, talde finko bat izateko aukera gutxiago dago. Gainera, ume euskaldunak eta erdaldunak batera egoten dira.

Gauzak horrela, lehenengo eta behin **Ipurtats** taldean moldaketa batzuk egin beharko dira. Taldearen arduradunekin eskaintza zabaltzeko eta hizkuntza bereizteko aukera aztertu behar da. Ekonomikoki bideragarria izango ez balitz, Udalaren inplikazioa eskatuko litzateke, argi eta garbi adieraziz plangintza modu egokian betetzeak duen garrantzia.

Egin beharreko aldaketak funtsean bi dira:

1.- Egiten dituzten ekintzetarako bi eskaintza egin, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Hala, hiru ekintza mota bereizten ditugu:

- Egun baterako txangoak (mendira, patinatzerak eta GUPera).
- Aste kulturala eta tailerrak herriko jaietan.
- Aste Santuko kanpamentua.

Dena den, lehenengo bi kasuetan umeengan eragin baino, lortuko duguna da euskarari espazio berezi bat eskaintzea, eta hori onuragarria bada, baina mugatua ere bai.

Aste Santuko kanpamentuari dagokionez, ez dira egun asko, baina elkarbizitzan euskararen erabilera indar daiteke, eta aukera hori aprobetxatu egin behar da, beraz gero aurkeztuko dudan plangintza erabil daitekeela uste dut.

2.- Tailer berezi bat eskaini gutxienez hiruhileko baterako, talde finko batekin aritzean umeengan eragitea errazagoa izango da eta. Kasu honetan Kultur Etxeak eskaintzen ez duen zerbait bilatzea komeniko litzateke.

Tailer horretan euskaraz molda daitezkeen umeak baino ez ditugu onartuko. Taldea itxia izango da, eta euskaraz hitz egitea ezinbesteko baldintza. Gainera aktibitateak garatzeko toki finko bat edukiko du, begiraleen lana erraztearren.

### 3.1.- PLANGINTZAREN ZEHAZTASUNAK

#### 3.1.1. OINARRIAK

Elortzako eskolan ikasten dutenen erdiak inguru Lehen Hezkuntzan aritzen dira, hala, 6-12 urteko adin tartean 57 ume daudela ikusten dugu, guztiak euskaldunak.

**Haur-Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleak mailaren eta irakastereduaren arabera.**

URDULIZ 2004-2005	Haur-Hezkuntza (1)	Lehen Hezkuntza (2)
A-X eredia	0	0
B eredia	0	3
D eredia	54	54
<b>GUZTIRA</b>	<b>54</b>	<b>57</b>

*\*Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Irakaskuntzaren estatistika.*

Ume asko ez diren arren, ezin dugu ahaztu beste eskola batzuetan ikasten duten ume euskaldunak ere badaudela, 17. orrialdeko datuek egiaztatzen duten bezala, eta osatu behar diren taldeak ez direla oso handiak izango, gutxienez hasiera batean, bestela begiralearentzat oso zaila izango da bere lana betetzea. Taldeak 8-12 umerekin osatutakoak izatea komeni da, lan zehatzak egiteko umeak talde txikiagoetan banatzeko kopuru erosoak direlako.

Eskaintza egin aurretik, zein tailerretan izan daitekeen egokia pentsatu behar da. Horretarako bi gauza eduki behar dira kontuan :

- Ekintza toki itxi batean garatuko da, eta beti toki berean.
- Egingo diren aktibitateek talde txikiagoetan aritzeko lanak eskatu beharko dituzte.

Horren arrazoia hauxe da: Lehenengoaren kasuan, toki finkoa izateak behaketa lana errazten du. Gune desberdinak antola daitezke eta umeak lanean dauden bitartean begiraleak bere oharrak hartzeko aukera izango du. Bigarren arrazoia aurrekoarekin lotuta doa, lana talde txikietan egiteko banatzean, begiralea nolabait taldetik kanpo geratzen da eta umeen artean harreman naturala sortzen da. Egoera horretan umeen hizkuntzari buruzko datuak jasotzeko aukera ezin hobea daukagu.

Hori dela eta, **Kultur Etxearen** eskaintzaren barruan dauden tailerren artean bi ez ditut egokiak ikusten: Pintura tailerra eta Trikitixa. Pintura tailerrak ez du taldekako lana egiteko aukera handirik ematen. Badirudi ume bakoitzak bere margolana egiten duela eta harreman handiena irakaslearekin dutela. Trikitixa tailerra banaka eskaintzen da, beraz, ez digu egitasmoa burutzeko balio. Baina **antzerki eta eskulan tailerrak** aproposak izan daitezke aurrean aipatutako bi baldintzak betetzen dituztelako: Kultur Etxeko lokaletan egiten dira eta talde txikiagoetan lan egiteko aukera ematen dute. Gainera ume kopurua ere egokia da (6-10 partaide) eta talde bat baino gehiago osatzen da. Beraz talde desberdinetako garapena konparatzeko bidea ematen du.

Gainera, Kultur Etxeak Antzerki tailer bat antolatzen du eskoletan. Arazoa da taldeak handiegia direla. 31 laguneko bi talde egin dira iaz. Hau ondo egiteko taldeak banatu egin beharko lirатеke, eta horretarako dauden arazoak, ekonomikoak zein egiturazkoak, aztertu beharko lirатеke. Baina interesgarria litzateke, bertako ume guztiak euskaldun osoak izango bailirатеke.

**Ipurtats Aisialdi Taldearen** eskaintza aztertzen badugu, zailagoa da daukagunarekin lan egitea. Lehenago esan dudan bezala, talde honen eskaintzak ez du iraupen luzea kurtsoan zehar eta horrela umeengan eragitea zaila da. Aukera bakarra izan daiteke **Aste Santuan** egiten duten 4 edo 5 egunetako irteeran. Denbora laburra da baina egun osoan elkarrekin egonda, ekintza bereziak antolatuko genituzke talde harremana euskaraz bultzatzeko.

Bestelako ekintzak irekiak dira, kalean egiten dira, eta oso konplexua da ume euskaldunentzako bakarrik egitea, bazterkerian erori gabe.

Nik kasu honetan hiruhileko baterako tailer bat sortzea proposatzen dut. Astean behin edo birritan egitea nahikoa da. Garrantzitsuena egonkorra izatea da. Kultur Etxeak eskaintzen ez duen zerbait izan behar duenez, **irakurketa-literatura tailer** bat izan daiteke martxan jartzen dena. Tailer horretan umeekin

testu mota desberdinak landuko lirateke, euren mailakoak edo euren mailara egokituak, eta gero taldeetan zerbait idatzi egin beharko lukete (ez derrigorrean mota horretako testu bat, euren iritzia edo kritika ere izan daiteke). Azken batean testua euren arteko harremana sortzeko aitzakia bat baino ez da izango.

### 3.1.2. PLANGINTZAREN AURRE-PAUSUAK

Plangintza hau arrakastatsua izan dadin ezinbestekoa da herritarren eta udalaren inplikazioa. Hala, martxan jarri baino lehen, egin nahi denaren aurkezpena egin behar da inplikatuaren aurrean (udala eta gurasoak batez ere). Horretarako, adin tarte horretako umeak dituzten herritarrei **egitasmoaren laburpen bat** helaraziko zaie apirilean edo maiatzaren hasieran, zergatiak eta helburuak azalduz. Testu horren helburuetako bat da argi uztea tailer horietan parte hartzen duten umeek euskaraz hitz egiteko gaitasuna eduki behar dutela eta, neurri batean, hizkuntza hori erabiltzeko konpromezua ere hartzen dutela. Beste alde batetik, izena ematen duten umeen gurasoek plangintzari oniritzia ematen diotela ziurtatzen dugu, nolabait. (*I Eranskina*)

Pausu horrekin gurasoek alde aurretik egitasmoaren berri izatea lortzen da, eta informazio bila datozenean ikuspegi zabalago bat izango dute, aldekoa ala kontrakoa. Horregatik gurasoek eta umeek euskararen aurrean duten jarrera ere kontuan hartu beharreko puntu bat izango da.

Zehatz dezagun zer diren jarrerak:

*" Jarrerak hiru osagai dituzte, kognitiboa (iritzi edo sinesmenak), afektiboa eta konduktuala (jokabide joera)..."*

*Jarrerak objektuaren ebaluazioa inplikatzeko du eta ikasia da. Paper motibatzailea du eta pentsamendua eragiten du. Denboran iraun egiten du.*

*Jarrerak funtzio desberdinak dituzte eta jarrera bat funtzio bat baino gehiago betetzen egon daiteke."*

*(\*Iturria: Olaso, Olatz. HIZNET 4. gaia. 44-46 or. Moldatua)*

Aurreko definizioan agertzen diren puntuak oso garrantzitsuak dira. Batetik jarrerak iritzi edo sinesmenetan oinarri bat dutela esaten da, eta alde afektiboarekin lotuta daude. Horrek guztiak pertsonen jokabidean eragiten du, beraz, ez dugu ahaztu behar euskararen inguruan dauden aurriritziak izan dezaketen eragina plangintza hau onartzeko momentuan.

Beste alde batetik, plangintza bera ebaluatu ahal izango dute umeek jardueretan izena eman aurretik. Horrek umea edo gurasoak motiba ditzake, baina desmotibatu ere bai, horregatik garrantzitsua da aurkezpen egoki bat egitea.

Horregatik guztiairengatik jarreraren azterketa egitea komeni da ezer baino lehen.

Jarrerak neurtzeko modu desberdinak daude. Nik plangintza honetan aldeko eta kontrako jarrerak identifikatzeko, **Lickert eskala** erabili dut. Sistema horren bidez subjektuak objektu baten aurrean duen adostasun edo desadostasun maila neurtzen da.

Prozedura horretan oinarrituta bi **galdeketa** prestatu ditut. Laburrak dira baina funtsezkoena jasotzeko balio dute. Galdeketa hori egitasmoaren laburpenarekin batera bidaliko da etxeetara, eta izena ematera datozenean beteta ekartzeko eskatuko zaie.

Inkesta bat gurasoek betetzekoa da eta puntu hauen inguruan galdetzen zaie: *(II Eranskina)*

- Euskararen erabilera nola baloratzen duten (ez da garrantzitsua- oso garrantzitsua da).
- Euskaraz bizitzeko esparru itxiak sortzeari buruzko iritzia.
- Zer iruditzen zaien ume euskaldunek gaztelaniaz hitz egitea euren artean.
- Euskaldunak badira, zein arlotan erabiltzen duten euskara eta zeinetan ez.
- Erdaldunak badira, zer iritzi duten euskarari buruz.

Bestea umei zuzendua da. Batzuek gurasoen edo nagusi baten laguntza beharko dute betetzeko. Galderak puntu hauen ingurukoak dira: *(III Eranskina)*

- Euskara gustatzen zaien ala ez.
- Normalean zer hizkuntza erabiltzen duten: lagunekin, etxean...
- Zer ekintza egingo luketen euskaraz.
- Euskaraz bizitzeko esparru itxi batean parte hartuko luketen.
- Zer gustatzen zaien eskolaz kanpo egiteko.

Gainera, umeek ematen duten informazioa baliagarria izan daiteke ekintza berriak prestatzeko.

Aurreko pausu horiek oso garrantzitsuak dira kontrako iritziak identifikatzeko eta neutralizatzen saiatzeko, berandu baino lehen. Baina egitasmoaren aurkezpena kontu handiz egin beharko da okerreko irudi bat ez emateko.

Umeak eta gurasoak informatuta egongo direnez, izena emateko momentuan gauzak errazagoak izan daitezke, izena ematea erabakitzen dutenek jakingo dutelako zertan izango den jardueraren atal hori. Izena ematean, beraz, **fitxa** bat betearaziko zaie. Fitxa horretan umeari buruzko informazioa ez ezik, gurasoei buruzkoa ere eskatzen zaie. Fitxaren bidez, oro har, umeek zein eredutan

ikasten duten, gurasoak euskaldunak diren ala ez eta etxeko hizkuntza zein den jakingo dugu. Oso ximplea bada ere, taldearen nondik-norakoak ezagutzeko balioko digu. *(IV Eranskina)*

Fitxa betetzen dutenean galdeketak eskatuko zaizkie. Etxetik eginda ekarri ez badituzte, berriro eginaraziko zaizkie eta fitxarekin batera jaso.

Izena emateko epea irailaren lehen astean ixtea komeni da, jasotzen diren datuak aztertzeke aukera izateko, eta begiraleekin egin beharreko lana adosteko.

Aurrelan horiek guztiak ezinbestekoak dira arrakasta ziurtatu nahi badugu. Partehartzaile bakoitzak oso argi eduki behar du zer egingo den eta zein helbururekin, sorpresa txarrak ez izateko.

Honekin, lanaren lehen atala amaituko litzateke. Hemendik aurrera taldean egingo den lanaren azalpena emango dut.

### **3.1.3.- TALDEAN GARATUKO DEN LANA**

Aurretik azaldutako guztia egin eta gero, izena eman duten umeen fitxak hartuko ditugu eta aztertzen hasiko gara.

Ekintza bakoitzerako zenbat ume dauden begiratuko dugu eta ume horien kalitateak zeintzuk diren ikusi. Aukera izanez gero, adinaren araberako multzoak egingo ditugu, gaiak eta mailak hobeto egokitu daitezzen. Aukerarik ez badago, eta talde bakarra badugu, erabiliko diren materialak moldatu egin beharko dira guztientzat erabilgarriak izan daitezzen.

Behin taldeak eginda, lehenengo egunean umeei egitasmoaren helburua azalduko zaie, eta horretarako behar beste denbora hartuko da. Denak gelara sartzen direnean, begiraleak biribilean jezarriko ditu eta puntu hauek azalduko dizkie:

- Egun horretan zein eginkizun duten betetzeko. Adibidez, eskulan tailerrean zein izango den egingo duten eskulana, nola gauzatuko duten, zer material erabiliko duten etab.
- Bi helburu nagusi dituztela azalduko die: helburu bat ondo pasatzea dela eta bestea euskaraz bizitzea.
- Horregatik, han dauden bitartean bai taldekideekin bai begiralearekin euskaraz hitz egin behar dutela jakinaraziko zaie.
- Ekintza hori euskaraz hitz egiten dutenentzat baino ez dela esango zaie, Urdulizen oso gutxitan egin ahal dutelako euskaraz, gaztelaniaz ordea, edonon egin dezaketela.

- Euskaraz hitz egingo duten ala ez galdetuko zaie. Erantzuna baiezkoa bada ez da arazorik planteatzen. Baten batek ezetz esango balu, begiraleak zergatia galdetuko dio eta konbentzitzen saiatuko da.
- Ea dena ondo ulertu duten galdetuko zaie eta tarte txiki bat eskainiko zaie galderak egin ditzaten.

Umeak lanean jarriko ditugu. Egun horretarako programatuta dauden eginkizunak gauzatzen hasiko dira. Umeak bi edo hiru taldetan banatuko ditugu, kopuruaren arabera, eta begiralea pixka bat urrundu egingo da. Umeek lana garatzen duten bitartean, begiralea talde guztietatik pasatuko da behaketa egiteko, eta oharrak hartuko ditu, baina ez die ezer esango lanean dauden bitartean, bestela euren arteko harremana moztu egingo da eta umeak ez dira eroso egongo.


Baina gauza bi kontuan eduki behar ditugu:

1.- Talde harremanetan hiru hiztun mota aurkituko ditugu:

- *Hiztun aktiboa* hizkuntza jakin baterako joera duena da. Euskara gaztelania baino sarriago erabiltzeko joera izan dezake edo alderantziz, gaztelania euskara baino gehiago erabiltzekoa.
- *Hiztun pasiboa* izango da hizkuntza bat ala bestea neurri berean aukeratzen dutenak, ez dute joera berezirik hizkuntza bat aukeratzeko. Taldearen dinamikaren menpe daude.
- *Hiztun isolatua* komunikazio saretik kanpo dagoena da, ez du hizkuntzan eragiten.

(\*Iturria: Erriondo, Altuna eta Suberbiola. HIZNET, 9. gaia. 22- 23 or. Moldatua)


2.- Sarritan taldean **lider** bat egotea ere gerta dakiguke, eta horrek lagun dezake edo eragozpenak sortu. Taldearen harremana bideratzen duena liderra bada, taldeak joera ahula izango du eta liderraren menpe egongo da. Euskaldun aktiboa bada, litekeena da euskara bultzatzea taldean, baina gaztelaniaz aktiboa bada, bere eragina guztiz kontrakoa izan daiteke.




\*Ez dago benetako talderik. Kideak liderraren inguruan biltzen dira.



Edo liderrik egon ez arren, taldean azpitaldetxoak egon daitezke. Kasu horretan taldekideek ez dute harreman sakonik edukiko euren artean (joera zatikatua) eta plangintza honen eragina partziala izango da. Ebaluazioa egiteko unean informazioa faltako zaigu, hartutako laginak ez direlako adierazgarriak izango.



Ondorioz, eta kontuan izanda lortu nahi duguna ume guztiak talde-harremanetan euskaraz aktiboak izatea dela, ahalegin berezia egin behar dugu ume guztiak taldean ondo integratzen (joera irekia), elkarren arteko komunikazioa sor dadin. Hori dela eta, oso garrantzitsua da taldekideak nahastea eginkizun desberdinak gauzatzean, ume guztiek ume guztiekin izan behar dute harremana bestela informazioa ez da osoa izango, fidagarritasuna galduko du eta ezin izango dugu eragin modu egokian.



*Talde bat izango dugu eta guztiek guztiekin edukiko dute harremana.*

Saioa amaitzeko hamar minutu edo falta direla, berriro jarriko ditugu umeak biribilean eta egindakoaren inguruan galdetuko diegu:

- Zer iruditu zaien egindako eskulana. Zaila izan den ala ez.
- Gustura ibili diren lanean. Taldekideekin ondo moldatu diren ala ez.
- Lan egin bitartean euskaraz hitz egin duten galdetuko zaie. Ezetz esaten badute norekin ez eta zergatik. Datu hori jasotzea garrantzitsua da horrela jakin dezakegu beti pertsona berekin erdaraz hitz egiten duten ala ez. Beraz, norekin hitz egin duten gaztelaniaz jasotzeko koadro bat prestatuko dugu eta egunero bete. Erdaraz hitz egiten dutenean dagokion lauki gorrian gurutze bat jarriko da. Neurketa bi norabideetan egingo da. Adibidez, demagun 2. kideak 7. kidearekin gaztelaniaz hitz egiten duela, baina 7. kideak euskaraz erantzuten diola. Horrela adieraziko genuke koadroan:

DATA	1. Kidea	2. Kidea	3. Kidea	4. Kidea	5. Kidea	6. Kidea	7. Kidea	8. Kidea
1. Kidea	█	█	█	█	█	█	█	█
2. Kidea	█	█	█	█	█	█	X	█
3. Kidea	█	█	█	█	█	█	█	█
4. Kidea	█	█	█	█	█	█	█	█
5. Kidea	█	█	█	█	█	█	█	█
6. Kidea	█	█	█	█	█	█	█	█
7. Kidea	█	X	█	█	█	█	█	█
8. Kidea	█	█	█	█	█	█	█	█

Sistema horren bidez begi bistan izango dugu nola garatzen den kideen arteko harremana. Koadro hori, umeek emandako informazioa jasotzeko ez ezik, begiraleak behaketaren bidez ikusten duena adierazteko ere balio du.

Prozesua astuna izan ez dadin, ez da beharrezkoa guztiek guztiei buruz hitz egitea, nahikoa da erdarazko adierazpenak jasotzea, hori bai, bi norabideetan.

Zergatiak koadroaren azpian idatziko ditu begiraleak. Bikoteak zehaztu eta gero, arrazoiak adieraziko du. Adibidez: "2.kidea-7. kidearekin: beti egin izan dutelako erdaraz elkarrekin." Ez badute arrazoirik ematen ere apuntatu egingo da.

KIDEAK	ZERGATIK EZ
2.kidea-7. kidea	Beti egin izan dutelako erdaraz elkarrekin.
1. kidea-4. kidea	Ez dute arrazoirik eman.

- Bestalde, lan egin bitartean euskaraz hitz egin duten galdetzean baietz erantzuten badute, zoriondu behar zaie eta horrela jarraitzeko animatu.
- Azkenean, hartutako oharrak erabiliz, egun horretako lanaren balorazioa emango diegu, bai jarreraren eta portaeraren aldetik, eta bai hizkuntzaren aldetik. Bata edo bestea zuzendu behar dutenei esan egingo zaie eta hurrengo egunerako konpromezuak betetzeko eskatu. Ez da umea zigortuko, bestela kontrako eragina lortzeko arriskua dugu: euskara eta zigorra identifikatu, eta saioetara etortzeari utzi.

Saioa amaitu eta gero, begiraleak egun horri dagokiona jaso egingo du koaderno batean (oharren laburpen bat, umeekin hitz egindakoa eta guztiaren inguruko hausnarketa laburra). Eguneroko hori tresna baliagarria izango da helburuaren betetze maila eta prozesu guztia ebaluatzeko, eta ikastaroaren gorabehera guztien memoria izateko. Gainera kontrastatzeko tresna bat ere bada, umeek esaten dutena eta begiraleak oharretan jaso duena kontrastatzeko, hain zuzen.

Prozesu hori hasieran egunero errepikatzea oso garrantzitsua izango da. Saioak aurrera joan ahala ume guztiek izango dute argi zeintzuk diren egitekoak eta helburuak eta ez da hain zorrotza izan beharko. Halaber, lehen saioetan denbora gehiago eskainiko diogu, baina dinamika barruan sartzen direnean askoz arinago egingo da.

Baina goian aipatutako tresna horiek badute subjektibotasun puntu bat. Azken batean baloratzen dena umeek esandakoa eta norberaren inpresioa izango baita. Horregatik, subjektibotasunaren arazoa neurri batean ekiditeko bi neurketa objektibo egingo dira ikastaroan zehar: bat hasieran eta beste bat amaieran.

Hasierakoa hirugarren saioan egingo dugu, lehen egunetan umeentzat dena oso berria izango delako, eta hobe da egitekoaren nondik-norakoak ulertzeko uztea egun horiek.

Kurtso amaierako grabaketa azken aurreko saioan egingo da, azken egunerako zerbait berezi antolatuko da eta.

Neurketa horiek bi modutan planteak daitezke, beti ere dauzkagun baliabideen arabera, baina bietan umeak konturatu gabe egin beharko dira, bestela euren portaera ez da naturala izango.

**1.- Grabaketa bideoaren bidez egitea:** kasu honetan, bideoa toki finko batean kokatuko dugu, ezkutuan, eta mahai bati begira. Egun horretarako programatuta daukagun eginkizunak bidea eman behar du talde guztiak mahai horretatik pasatzeko. Izan daiteke, adibidez, atalka egin beharreko lan bat, atal bakoitza gune zehatz batean egongo da eta denek pasatu beharko dute gune guztietatik, derrigorrean, eginkizuna amaitu ahal izateko.

Bideoaren bidez egindako grabaketak informazio gehiago emango digu, ez-hitzezko lengoia ikusteko aukera ere izango dugulako, eta horrela umeen arteko tira-birak, konplizitateak etab. aztertu ahal izango ditugu, baina gauzatzeko zailagoa da, baliabide falta edo toki egoki baten falta izan dezakegulako.

**2.- Grabaketa kasetearen bidez egitea:** kasetea tresna erabilgarriagoa da. Erraz lor dezakegu grabagailu txiki bat eta gurekin eraman dezakegu batetik bestera.

Kasu horretan ez da beharrezkoa toki finko bat izatea. Begiraleak grabagailua poltsiko batean ezkutatuta eraman dezake eta taldez talde joan. Edozein kasutan ere, informazioa ez da hain zehatza izango, umeak ahotsaren bidez bereiz beharko ditugu, beraz, grabaketaz gain oharrak ere hartuko ditugu eta trikimailuren bat erabili taldekideak identifikatzeko: izenak esan ditzatela eskatu, adibidez.

Grabaketa horien helburua begiraleak hartutako inpresioak ziurtatzea izango da. Batetik, ikasturte hasierako egoera izango dugu, lehen grabaketaren bidez. Hor argi geratuko da begiraleak bere lehen egunetan jasotako datuak bat datozen ala ez benetako egoerarekin. Ez dugu ahaztu behar begiraleak ezin duela guzti-guztia hartu, bera ikusten eta entzuten egongo da baina %100 hartzea ezinezkoa da, beraz hutsuneak izango dira seguru.

Bestetik, amaierako egoera errearen berri ere edukiko dugunez, ikastaroan izandako bilakaera aztertu ahal izango dugu. Gainera, kurtsioan zehar begiraleak idatzitako egunerokoaren informazio gehigarria edukiko dugu, prozesuaren garapena nola gauzatu den ulertzen laguntzeko.

### 3.2.- EMAITZEN EBALUAZIOA NOLA EGIN

Kurtsoa amaitu eta gero datu guztien azterketa sakona egingo da, hurrengo urteari begira hobetu beharrekoak egokitzeko eta ondo egon diren planteamenduak sendotzeko.

Aztertu beharreko puntuak hauek dira:

#### Jarrerak:

- Udalaren jarrera: Eskatu zaion materiala eta baliabideak emateko prest egon den, zerbait eskatu zaionean azkar erantzun duen ala asko kostatuta lortu den.
- Gurasoen jarrera: arazorik egon den gurasoren batekin, laguntza eskatu zaienean nola erantzun duten, proiektuan inplikatu diren (galdeketa bete duten, iradokizunik egin duten...).
- Umeen jarrera: arauak onartu dituzten, gela barruko portaera egokia izan den.
- Begiralearen jarrera: umekin ondo moldatu den, eskatu zaiona egiteko prest egon den (egunerokoa, helburuen errepassoak...)

#### Metodologia eta emaitzak

- Eguneroko errepassoa onuragarria izan da ala ez dio ezer ekarri plangintzari?
- Egunerokoa idaztea onuragarria izan da ala ez dio ezer ekarri plangintzari?
- Grabaketak onuragarriak izan dira?
- Zein grabaketa sistema erabili da, kasetea ala bideoa? Egiteko arazorik egon da?
- Ikasturte hasierako eta amaierako egoerak kontuan izanda, umeen hizkuntza-ohituretan hobekuntzarik egon da?
- Nolakoa izan da asistentzia ikastaroan zehar?
- Asistentziak eragina izan du emaitzetan (Asistentzia ona=emaitza ona, asistentzia txarra =emaitza kaskarra)?
- Hobekuntzarik egon bada, zein arlotan?
- Hobekuntzarik egon ez bada, zergatik gertatu da?
- Aldatu beharrekoak eta sendotu beharrekoak zehaztu.

Guztiarekin txosten bat idatziko da eta alderdiei banatuko zaie, euren ekarpenak egin ditzaten eta erantzukizuna duten arloetan txarto egin dutenaren kontzientzia har dezaten.

### 3.3.- ARAU OROKORRAK ETA KRONOGRAMAK

#### 3.3.1.- ARAUAK

1.- Kurtsoak Urdulizen erroldatuta egon eta interesa erakusten duten guztientzat dira. Izena emateko epea amaitzen denean lekua egonez gero, erroldatuta ez daudenek ere matrikulatzeko aukera izango dute.

2- Izena ematen dutenak euskaldunak izatea ezinbestekoa da.

3.- Kurtsoen iraupena:

- Kultur Etxeko tailerrak urriaren 1etik maiatzaren 31ra arte izango dira.
- Ipurtats Taldeak antolatutako tailerra urritik abendura. Aste Santuko irteeraren data zehaztu gabe dago.

4.- Matrikulatzeko eskabide orria bete behar da. Eskabideak sarreraz-zenbakiaren ordenaren arabera onartuko dira. Matrikulatzeko orriarekin batera galdeketak emango dira.

5.- Ikasleren batek taldea utzi nahi badu, horretarako dagoen orria bete beharko du, eta begiraleari eman. (*V. Eranskina*)

6.- Gainerako arauak (matrikula prezioak, ordaintzeko moduak, egutegia, etab.) bai Kultur Etxeak eta bai Ipurtats taldeak ezarrita dituztenak izango dira.

#### 3.3.2.- KULTUR ETXEKO KRONOGRAMA

Aurkeztutako plangintza hori batez ere Kultur Etxean martxan jartzekoa da, hor egiten baita eskaintzarik osoena. Kultur Etxeko ekintzak antolatzeko kronograma honakoa litzateke:

## I Kronograma

<b>Apirila.</b>	-Egitasmoaren laburpena eta galdeketak helarazi udalari eta gurasoei.
<b>Irailaren lehen astea.</b>	-Izena eman eta fitxa bete. <b>Galdeketak</b> jaso.
<b>Irailaren bigarren astea.</b>	-Taldeak <b>osatu</b> eta interesatuei jakinarazi.
<b>Lehen saioa.</b>	- Umeei egitasmoaren <b>helburua azalduko</b> zaie.
<b>Hirugarren saioa.</b>	- Lehen neurketa: <b>1. grabazioa.</b>
<b>Azken aurreko saioa.</b>	- Bigarren neurketa: <b>2. grabazioa.</b>
<b>Azken saioa.</b>	- Umeekin ikasturtean bizi izandako esperientziaz hitz egin. Kurtso amaierako jai.
<b>Ekainaren lehen hamabostaldia.</b>	- Datuen azterketa eta irakurketa. Ondo eginak eta hobetu beharrekoak.
<b>Ekainaren bigarren hamabostaldia.</b>	- Emaizten ondorioak jakinarazi udalari eta gurasoei.

### 3.3.3.- IPURTATS TALDEARI BURUZKO OHARRAK ETA KRONOGRAMAK

Ipurtats Taldearentzat adierazitakoa baliagarria den arren, zenbait gauza egokitu egin beharko dira. Batetik Aste Santuko eskaintza dugu. Garai horretan 4 edo 5 egun ematen dituzte umeak kanpamentuan.

Puntu honetan oso garrantzitsua da umeei gogoraraztea irteeraren helburuetako bat harremanak euskaraz izatea dela. Horretarako, lehen egunean begiraleek umeekin hitz egingo dute eta arauekin batera, kanpamentuaren helburuak zeintzuk diren azalduko diete. Eguna amaitzean eurekin batera hausnarketa egingo dute eta egunerokoan jaso esandakoak. Kultur Etxearen kasuan ez bezala, egun gutxi direnez, umeekin elkarrizketa hori egunero egitea komeni da.

Horretaz aparte, kanpamentuak irauten duen bitartean bereziki landu beharko dira umeek taldeka egin behar dituzten ekintzak. Gehienak kalean burutuko dira eta batzuetan plangintzan proposatutakoa garatzeko testuinguru desegokian: ibaian, mendian... Kasu horietan zailena izango da helburuen betetze maila egiaztatzea, neurketak egiteko aukera gutxi egongo dira eta. Dena den, otorduetan umeak elkartu egingo dira derrigorrean, eta momentu horiek aprobetxa ditzakegu grabazioak egiteko: bat lehen egunean eta beste bat azkenekoan. Gainera, begiraleek egunerokoa beteko dute, eguneko gorabeherak laburbilduz.

Aurreko orrietan esan dudan bezala, gero datu horiek ebaluazioa egiteko erabiliko ditugu.

Gauzak horrela, Aste Santuko irteerarako kronograma hauze litzateke:

## II Kronograma

<b>Urtarrilaren bigarren hamabostaldia.</b>	<b>-Egitasmoaren laburpena eta galdeketak</b> helarazi udalari eta gurasoei.
<b>Urtarrilaren azken eguna.</b>	- Interesa dutenekin bilera egin burutuko diren ekintzak eta plangintzaren gorabeherak azaltzeko.
<b>Otsailaren 10etik 20ra.</b>	-Izena eman eta fitxa bete. Galdeketak jaso.
<b>Martxoaren lehen astea.</b>	-Taldeak osatu eta interesatuei jakinarazi.
<b>Irteeraren lehen eguna.</b>	- Umeei arauak eta egitasmoaren helburua azalduko zaizkie, eta eguna amaitzean hausnarketa egingo da eurekin. Hau egunero errepikatuko da.
<b>Irteeraren lehen eguna.</b>	- Lehen neurketa: <b>1. grabazioa.</b>
<b>Irteeraren azken eguna.</b>	- Bigarren neurketa: <b>2. grabazioa.</b>
<b>Irteeraren azken eguna.</b>	- Umeekin irteeran bizi izandako esperientziaz hitz egin.
<b>Maiatzaren lehen hamabostaldia.</b>	- Datuen azterketa eta irakurketa. Ondo eginak eta hobetu beharrekoak.
<b>Maiatzaren bigarren hamabostaldia.</b>	- Emaitzen ondorioak jakinarazi udalari eta gurasoei.



Bestetik, lan honen 3.1.1. puntuan adierazi dudan bezala, hiruhileko baterako **irakurketa-literatura** tailer bat antola daiteke Ipurtats Taldearen ardurapean. Kasu honetan baldintzak egokiagoak izango dira, toki finko batean burutuko delako eta taldea egonkorra izango delako.

Tailer horren bidez umeei euskaraz bizitzeko beste aukera bat zabaldu nahi zaie, eta gainera, hizkuntza bera izango da egitekoaren ardatza. Umeekin landuko diren testuak ahozkoak zein idatzizkoak izango dira, eta mota askotakoak: ipuinak, gutunak, iragarkiak edo umeei interesatzen zaien edozein. Helburua ez da izango literaturari buruzko eskolak ematea. Gaia umeentzako espazio euskaldun bat sortzeko aitzakia baino ez da. Literatura eta irakurketa den bezala, beste edozein izan daiteke.

Hala ere, gaiak zailtasunak izan ditzake, horregatik planteatzen dut hiruhileko baterako. Epe horretan egingarria dela uste dut, eta dena ondo joanez gero, beste hiruhileko baterako programazioa egin daiteke, nahiz eta tailerra gehiegi luzatzea ez den komeni, umeen arreta gai horren inguruan ikasturte osoan mantentzea zaila da eta.

Planteamendua honelakoa izango da:

- Lehenengo umeengan interesa piztu behar da. Horretarako landuko den testu motaren inguruan dakitena edo bururatzen zaiena botako dute.
- Gero testu zehatz bat hartuko dugu eta denon artean esan dituzten gauzak konprobatu.
- Azkenik talde txikietan banatuko ditugu eta landu den testuaren araberrako egiteko bat emango zaie. Momentu hori aprobetxatuko du begiraleak taldetik "urruntzeko" eta bere oharrak hartzeko.

Umeak lanean dauden bitartean begiraleak egitekoa burutzen lagunduko die, baina ez die hizkuntzari buruzko ezer esango.

Lana amaitzen dutenean taldean aurkeztuko dute, eta klasetik irten baino lehen egunean egindakoa aztertuko dute: bai tailerraren egitekoaren aldetik, bai euskararen aldetik.

Hauxe dugu tailer honen kronograma:

### III Kronograma

<b>Maiatzaren amaiera.</b>	-Egitasmoaren laburpena eta galdeketak helarazi udalari eta gurasoei.
<b>Irailaren lehen astea.</b>	-Izena eman eta fitxa bete. <b>Galdeketak</b> jaso.
<b>Irailaren bigarren astea.</b>	-Taldeak osatu eta interesatuei jakinarazi.
<b>Lehen saioa. Urriaren lehen astea.</b>	- Umeei egitasmoaren helburua azalduko zaie.
<b>Hirugarren Urriaren saioa. hirugarren astea.</b>	- Lehen neurketa: <b>1. grabazioa.</b>
<b>Abenduaren lehen astea.</b>	- Bigarren neurketa: <b>2. grabazioa.</b>
<b>Azken saioa.</b>	- Umeekin ikasturtean bizi izandako esperientziaz hitz egin.
<b>Urtarrilaren lehen astea.</b>	- Datuen azterketa eta irakurketa. Ondo eginak eta hobetu beharrekoak.
<b>Urtarrilaren bigarren astea.</b>	- Emaitzen ondorioak jakinarazi udalari eta gurasoei.
<b>Urtarrilaren amaiera baino lehen.</b>	-Egitasmoaren laburpena eta galdeketak helarazi udalari eta gurasoei.

## 4. - ERANSKINAK

### I Eranskina: Aurkezpen testua.

Eskolaz kanpoko jarduerak euskaldunagoak izan daitezen ahalegin bat aurkeztera gatozkizue.

Dakizuenez, euskara Europako hizkuntza zaharrenetako bat da, eta gure ondare kulturalaren zati garrantzitsua. Baina euskararen egoera orokorra gaur egun ez da ona, batetik, oraindik gure gizartearen zati handi batek ez dakielako euskara, eta bestetik, dakien askok ez duelako ia erabiltzen.

Egoera horren ondorioz, euskarak ez dauka beharko lukeen presentzia gure gizartean. Oraindik gaur egun arlo askotan euskaldunek ezin dute egunerokotasunean euskara erabili: zerbitzu asko ezin dira euskaraz eskatu, eta eskatzekotan, arazoak sortzen dira zerbitzu hori behar bezala jasotzeko.

Urduliz ez da salbuespen bat. Egitasmo honen diagnosian adierazten den bezala, Urdulizen euskararen egoera oso kezagarria da, bai euskaldun kopurua eta bai erabilera ere atzeraka doazelako. Horrela jarraituz gero, euskara desagertzeko arriskuan egongo da.

Urdulizeko ia biztanleen erdiak euskaldunak izan arren, hori gero ez da islatzen ez etxeko erabileran ezta kalekoan ere. Etxeetan erdaldunen bat egonez gero, euskara kaltetuta ateratzen da, gaztelaniaren alde egiten baita. Horrek eragin zuzena du ama-hizkuntzan, eta azkenean, arrazoi batengatik ala bestearengatik, umeak eskolara heldu arte ez dira euskalduntzen, eta etxeetan gaztelania nagusitzen doa.

Gainera, populazioa asko hazi da Urdulizen, eta oraindik ere gora egingo du nabarmen, baina euskaldunen portzentaia biztanleena baino motelago hazi da. Beraz, gizartea orokorrean erdaldundu egingo dela aurrikus daiteke.

Gauzak horrela, euskara erabiltzeko espazio bereziak sortu behar direla argi dago. Gure umeei kalean eta etxean ez duten aukera hori eskaini behar zaie, euskararen "txokoak" eraikiz. Helburua erdaraz egiteko ohitura duten umeak euskaraz hitz egitera bultzatzea denez, egitasmo honetan parte hartzeko euskaraz ondo moldatzea ezinbestekoa izango da (B edo D ereduan ikasten duten umeak). Taldekideen arteko harremana euskara hutsean izatea lortzen badugu, litekeena da gero ere kalean elkarrekin daudenean euskaraz aritzea.

Lan hori eskolaz kanpoko jardueren bidez egitea proposatzen dizuegu. Urdulizko Kultur Etxeak eskaintza zabala du euskaraz, baina horrek ez du bermatzen umek elkarrekin euskaraz hitz egiten dutenik jardueran parte hartzen dauden bitartean.

Laburbilduz, hauxe planteatzen da:

- Umeak gustuko duen ekintzan emango du izena. Guretzat hori umeak elkartzeko eta testuinguru batean kokatzeko aitzakia izango da. Umeek beti egiten dutena egingo dute, baina euskara hutsean.
- Parte hartzen dutenei jarriko zaien baldintza bakarra izango da euskaraz hitz egitea tailerrak dirauen bitartean.
- Egunero bi ekintza mota burutuko dira:
  - a) Euskararen inguruko hausnarketa/elkarrizketa. Egitasmoaren oinarria umekin hitz egitea izango da. Begiraleak saio bakoitzaren hasieran plangintzaren helburuak birpasatuko ditu umekin, eta amaieran, egindakoaren inguruko hausnarketa egingo dute bost edo hamar minututan. Ez da zigorrik egongo, baina jarrera positiboak "saritu" egingo dira: helburua bete dutenei ondo ari direla esango zaie, euren jarrera positiboa azpimarratuz eta horrela jarraitzeko animatuz.
  - b) Aukeratutako tailerrari dagokiona. Umeei egunero azalduko zaie zer egingo duten saio bakoitzean.

Begiraleen lana bikoitza izango da, beraz. Batetik, umek erabiltzen duten hizkuntza kontrolatu behar dute, baina interferentziarik sortu gabe, hau da, begiraleek oharrak hartuko dituzte saio-amaieran eztabaidatzeko, baina ez dute umearen jarioa etengo, hasieran gutxienez. Bestetik, tailerrari dagokion lana egiten gustura daudela ziurtatu behar dute.

Egitasmo hori martxan jartzeko bi tailer iruditu zaizkigu egokienak: antzerkia eta eskulanak.

Zuen umeak bi tailer horietakoren batean sartzeko asmoa baduzue, gurasoei plangintzan zehazten dena etxetik bultzatzeko eskatzen zaizue. Egitasmoa aurrera eramateko zuen inplikazioa behar dugu eta horretarako laguntza eskatzen dizuegu.

Zuen galderak erantzuteko prest gaude.

## II Eranskina: Umeei egiteko galdeketa

Eman ezazu zure iritzia azpian agertzen diren baieztapenen inguruan:

### 1.- Euskarari buruz...

	EZER EZ	OSO GUTXI	GUTXI	PIXKA BAT	ASKO
a) Euskara gustatzen zait.					
b) Euskara erabiltzen dut.					
d) Euskaraz dauden produktuak (liburuak, pelikulak...) erosten ditut.					
e) Euskaraz dauden aktibitateak aukeratzen ditut.					

### 2.- Euskaraz hitz egiten dut...

	INOIZ EZ	GUTXITAN	ASKOTAN	IA BETI	BETI
a) Familiarekin.					
b) Lagunekin kalean nabilenean.					
d) Eskolan klasean nagoenean.					
e) Eskolan jolastorduan nagoenean.					

### 3.- Urdulizen,...

	INOIZ EZ	GUTXITAN	ASKOTAN	IA BETI	BETI
a) Euskara bakarrik erabiltzen den talde batean parte hartuko nuke.					
b) Aktibitatea euskaraz izatea nahi dut.					

d) Begiraleekin euskaraz hitz egin nahi dut.					
e) Taldekoekin euskaraz hitz egin nahi dut.					

4.- Eskolaz kanpoko jardueretan...

	INOIZ EZ	GUTXITAN	ASKOTAN	IA BETI	BETI
a) Tailerrak euskaraz egingo nituzke.					
b) Aste kulturalako aktibitateak euskaraz egingo nituzke.					
d) Kirola euskaraz egingo nuke.					
e) Aste Santuan, euskarazko kanpamentura joango nintzateke.					

5.- Eskolaz kanpoko jardueretan ...

	INOIZ EZ	GUTXITAN	ASKOTAN	IA BETI	BETI
a) Musika ikastea gustatzen zait.					
b) Kirol egitea gustatzen zait.					
d) Eskulanak egitea gustatzen zait.					
e) Jolastea gustatzen zait.					

**Goian agertzen ez den beste ekintzarik egitea gustuko baduzu adieraz ezazu hemen:**

.....

.....

.....

## Umeen galdeketaren datuak irakurtzeko irizpideak

Galdeketa honetan 5 atal desberdin landu dira. Atal bakoitzari 4 item eman zaizkio Galdera bakoitzeko guztira gutxienez 0 puntu zenbat daitezke eta gehienez 16. Jarrera positibotzat emateko 12-16 puntu zenbatuko ditugu.

Lehenengo atalak euskararen aurrean duten jarrera aztertzen du. Item guztiak positiboak direnez, INOIZ EZ erantzuten badute 0 puntu zenbatuko ditugu, negatiboena baita, eta BETI erantzutekotan 4 puntu, positiboena izateagatik.

Bigarren atalaren bidez euskara zein eremutan erabiltzen duten jakin nahi da. Proposatutako eremuak umeentzat ohikoenak dira: etxea, lagunartea eta eskola. Kasu honetan ere, item guztiak positiboak dira, beraz, aurreko ataleko zenbaketa bera egingo da.

Hirugarren atalean euskaraz bizitzeko esparru itxi batean parte hartuko luketen aztertu nahi da. Horretarako aktibitateari buruz galdetzeaz gain taldekideei eta begiraleei buruz ere galdetzen zaie. Hirugarren honetan ere erantzun positiboak eskuinean daude, beraz, neurketa aurrekoetan bezala egingo da.

Laugarren atalean zer egingo luketen euskaraz galdetzen zaie. Atal honetan kontuan hartu da Urdulizen gaur egun dagoen eskaintza, eta galderak horren inguruan egin dira. Puntuazioa aurrekoetan bezala egingo da.

Bosgarren atala informazioa jasotzeko baino ez da. Honen bidez umeen gustuak zeintzuk diren jakin nahi da, besterik ez. Atal hori ez dugu aurrekoekin batera sartuko, ez zenbatuko. Egin beharreko gauza bakarra datuak hartzea izango da, datuok gerora eskaintza egokitzeko balio ahal izango digute eta.

Galdeketaren amaieran iradokizunak egiteko utzi den espazioan zerbait idazten badute, bosgarren ataleko datuekin batera jasoko da, iradokizunak direla azalduz.

Ondorioz, aldeko jarrerak 48-64 puntu artekoak izango dira.

### III Eranskina: Gurasoei egiteko galdeketa

**Eman ezazu zure iritzia azpian agertzen diren baieztapenen inguruan/  
Danos tu opinión sobre los siguientes puntos:**

- \* *Gutziz desados= totalmente en desacuerdo*
- Desados= en desacuerdo*
- Ez ados ez desados= ni de acuerdo ni en desacuerdo*
- Ados= de acuerdo*
- Gutziz ados= totalmente de acuerdo*

**1.- Euskararen erabilerari dagokionez...  
En lo que respecta al uso del euskara...**

	GUZTIZ DESADOS	DESADOS	EZ ADOS, EZ DESADOS	ADOS	GUZTIZ ADOS
a) Talde euskaldun batean kide bakarria eralduna denean ez da inoiz euskara erabili behar, errespetu falta da. <i>Cuando en un grupo de vasco parlantes un sólo miembro no sabe euskara, nunca debe utilizarse ese idioma ya que es una falta de educación.</i>					
b) Garrantzitsuagoa da euskara maila ona izatea asko erabiltzea baino. <i>Es más importante tener un buen nivel de euskara que utilizarlo.</i>					
d) Euskarak, gainerako hizkuntzek bezala, lan on bat lortzeko balio du, besterik ez. <i>El euskara, al igual que otros idiomas, sólo sirve para encontrar un buen trabajo.</i>					



e) Zenbait tokitan euskara erabiltzea oztopo bihurtzen da, beraz, erabil dezagun gaztelania. <i>Utilizar el euskara en algunos sitios es un problema, por tanto utilizemos el castellano.</i>					
--	--	--	--	--	--

**2.- Ume / gazte euskaldunek...**

*Los niños y jóvenes vasco parlantes ...*

	GUZTIZ DESADOS	DESADOS	EZ ADOS, EZ DESADOS	ADOS	GUZTIZ ADOS
a) Euren artean beti hitz egin beharko lukete euskaraz. <i>Siempre deberían hablar en euskara entre ellos.</i>					
b) Berdin da zein hizkuntza erabiltzen duten. Euskara badakite eta horrekin nahikoa da. <i>No importa que idioma utilizan. Ya saben euskara y con eso es suficiente.</i>					
d) Orain euskara erabiltzen ez badute ere, helduak direnean erabiliko dute. <i>Aunque ahora no utilicen el euskara, ya lo usaran cuando sean adultos.</i>					
e) Ez dute euskara baloratzen. Eskolan duten beste ikasgai bat besterik ez da. <i>No valoran el euskara. No es más que otra asignatura de la escuela.</i>					

3.- Urdulizko eskolaz kanpoko jarduerari dagokienean, gure seme-alabek/ak...

*En lo que respecta a las actividades extraescolares de Urduliz, nuestros hijos e hijas...*

	GUZTIZ DESADOS	DESADOS	EZ ADOS, EZ DESADOS	ADOS	GUZTIZ ADOS
a) Euskaraz bizitzeko espazio bereziak beharko lituzkete. <i>Necesitarían espacios específicos para vivir en euskara.</i>					
b) Euskara bakarrik erabiltzen den talde batean parte hartzea onartuko nuke. <i>Aceptaría que participase en un grupo en el que se utilice exclusivamente el euskara.</i>					
d) Badute behar duten eskaintza. Ez nuke aldaketarik egingo. <i>Ya tienen la oferta que necesitan. No haría ningún cambio.</i>					
e) Euskarazko eta gaztelaniazko taldeak bereiztea desegokia eta onartezina iruditzen zait. <i>Diferenciar los grupos de euskara y de castellano me parece inapropiado e inaceptable.</i>					

4 - A .- Yo no sé euskara y...

	NUNCA	POCAS VECES	MUCHAS VECES	CASI SIEMPRE	SIEMPRE
a) Me molesta que hablen en euskara en mi presencia porque no entiendo lo que dicen.					

b) Me parece imprescindible que mis hijos/as lo aprendan.					
d) Apoyo las iniciativas que fomentan su uso.					
e) Lo considero un obstáculo y poco práctico.					

4 -B .- Euskalduna naiz eta...

	INOIZ EZ	GUTXITAN	ASKOTAN	IA BETI	BETI
a) Toki guztietan lehen hitza euskaraz ematen dut, eta zerbitzuak euskaraz eskatzen ditut.					
b) Euskara erabiltzen dut:					
- Etxean, lagunartean, auzoan					
- Erakunde ofizialetan					
- Lanean					
d) Euskaldun batek erdaraz hitz egin arren, nik euskaraz erantzuten diot.					
e) Euskaraz hitz egiten badidate euskaraz erantzuten dut.					

**Goian aipatutako zerbaiti buruzko argibiderik eman nahi baduzu adieraz ezazu hemen/ Si deseas hacer alguna puntualización con respecto a lo arriba indicado, escríbela aquí:**

.....

.....

.....

## Gurasoen galdeketaren datuak irakurtzeko irizpideak

Galdeketa honetan ere 5 atal desberdin landu dira. Atal bakoitzari 4 item eman zaizkio Galdera bakoitzeko gutxira gutxienez 0 puntu zenbat daitezke eta gehienez 16. Jarrera positibotzat emateko 12-16 puntu zenbatuko ditugu.

Lehenengo atalak euskararen erabilera nola baloratzen duten aztertzen du. Proposatutako itemak helduen artean erabiltzen diren topikoak izan dira, askotan euskara ez erabiltzeko aitzakia bihurtu direnak. Atal honetako item guztiak negatiboak dira, hau da, euskararen alde egiten duten erantzunak ezkerrean daude, beraz, *GUZTIZ DESADOS* erantzuten badute 4 puntu zenbatuko ditugu, eta *GUZTIZ ADOS* erantzutekotan 0 puntu.

Bigarren atalaren bidez ume euskaldunek euren artean gaztelaniaz hitz egiteari buruzko iritzia jakin nahi da. Kasu honetan a) eta e) itemak positiboak dira, beraz, *GUZTIZ DESADOS* erantzuten badute 0 puntu zenbatuko ditugu, eta *GUZTIZ ADOS* erantzutekotan 4 puntu; b) eta d) itemak ostera negatiboak dira eta horietan aurreko ataleko zenbaketa bera egingo da.

Hirugarren atalean euskaraz bizitzeko esparru itxiak sortzeari buruzko iritzia eskatzen zaie: guraso diren aldetik zer nahiko luketen euren seme-alabentzat. Hirugarren honetan ere erantzun positiboak eta negatiboak daude. a) eta b) itemak positiboak dira, hortaz, *GUZTIZ DESADOS* erantzuten badute 0 puntu zenbatuko ditugu, eta *GUZTIZ ADOS* erantzutekotan 4 puntu; d) eta e) *GUZTIZ DESADOS* erantzuten badute 4 puntu zenbatuko ditugu, eta *GUZTIZ ADOS* erantzutekotan 0 puntu.

4 -A atala guraso erdaldunei zuzendua da. Bertan euskarari buruz duten iritzia eskatzen zaie. Horrek euren jarrera definitzen lagunduko digu. Laugarren puntu honetan a) eta e) itemak negatiboak dira, hala, *SIEMPRE* erantzuten badute 0 puntu emango zaizkie eta *NUNCA* erantzuten badute 4 puntu. b) eta d) itemak positiboak direnez *SIEMPRE* erantzuten badute 4 puntu emango zaizkie eta *NUNCA* erantzuten badute 0 puntu.

4 -B atala guraso euskaldunek bete behar dute. Honen bidez euskaraz aktiboak diren eta zein arlotan erabiltzen duten jakin nahi da. Item guztiak positiboak direnez, *INOIZ EZ* erantzuten badute 0 puntu zenbatuko ditugu, eta *BETI* erantzutekotan 4 puntu. Dena den, bosgarren ataleko b) itemak hiru zati ditu eta bakoitzari bere balorazioa eman behar zaio.

Zenbaketa egiteko 4 atal hartuko dira kontuan, eta bi zenbaketa desberdin egin beharko dira:

1. - Guraso erdaldunetan aldeko jarrerak 48-64 puntu artekoak izango dira (1etik 3ra eta 4 -A atala).

2. - Guraso euskaldunetan aldeko jarrerak 54-72 puntu artekoak izango dira (1etik 3ra eta 4 -B atala).

## IV Eranskina: Hasierako fitxa

### HASIERAKO FITXA

#### Idatzi interesatuaren datuak/ Escribe los datos del niño o niña.

Izen-abizenak/ Nombre y apellidos:.....

Jaioteguna/ Fecha nacimiento: .....

Helbidea/ Domicilio: .....

Ikasketak/ Estudios:.....

Ikastetxea/ Colegio:.....

Eredua/Modelo: A / B / D/ X

#### Idatzi gurasoen datuak/Escribe los datos de los padres

Aitaren izena /Nombre del padre: .....

Euskalduna/Sabe euskara: Bai / Ez Si/No

Amaren izen/ Nombre de la madre: .....

Euskalduna / Sabe euskara: Bai / Ez Si/No

Zein da etxeko hizkuntza? Euskara / Gaztelania

¿Que idioma habláis en casa? Euskara / Castellano

Harremanetarako telefonoa/Teléfono de contacto: .....

\*Informazio hau umearen profila izateko erabiliko dugu eta bertan adierazitakoa sekretupean gordeko da.

Esta información sólo será utilizada para definir el perfil del niño o niña y es totalmente confidencial.

## V Eranskina: Baja emateko fitxa

### **BAJA EMATEKO FITXA**

#### **Datu orokorrak / Datos generales**

Umearen izen-abizenak/ Nombre y apellidos: .....

Tailerra/ Taller:.....

Tailerraren arduraduna / Responsable:.....

Etorriko den azken eguna /Último día de asistencia:.....

Tailerra uzteko arrazioa/Razones para darse de baja: .....

.....

.....

.....

.....

#### **Tailerraren balorazioa/Valoración del taller**

Umearen balorazioa/Valoración del niño o niña:

.....

.....

.....

Gurasoen balorazioa/Valoración de los padres:

.....

.....

.....

\*Informazio hau umearen profila izateko erabiliko dugu eta bertan adierazitakoa sekretupean gordeko da.

Esta información sólo será utilizada para definir el perfil del niño o niña y es totalmente confidencial.

## BIBLIOGRAFIA

EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak 2001 . [www.eustat.es](http://www.eustat.es).  
Eskuratze data 2006-03.

III. Mapa Soziolinguistikoa, 2001. 1. argit. Vitoria-Gasteiz 2005. Eusko  
Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

Euskal Herriko Hizkuntza-Adierazleen Sistema (EAS). Eusko Jaurlaritza. Kultura  
Saila. [www.euskadi.net/euskara\\_adierazleak](http://www.euskadi.net/euskara_adierazleak). Azken eguneratze data 2005-03-02.

OLASO, Olatz. HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroa, 2005-2006 ikasturtea.  
4. gaia. Asmoz Fundazioa.

ERIZE, Xabier. HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroa, 2005-2006 ikasturtea.  
3. gaia. Asmoz Fundazioa.

ZALBIDE, Mikel. HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroa, 2005-2006 ikasturtea.  
3. gaia. Asmoz Fundazioa.

ERRIONDO, Lore, ALTUNA, Olatz eta SUBERBIOLA, Pablo. HIZNET Hizkuntza  
Plangintza Ikastaroa, 2005-2006 ikasturtea. 9. gaia. Asmoz Fundazioa.

AMONARRIZ, Kike. HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroa, 2005-2006  
ikasturtea. 12. gaia. Asmoz Fundazioa.

*Urdulizko eskolaz kanpoko jarduerari buruzko informazioa emateagatik nire esker  
ona:*

Oiane Alzibarri (Kultur Etxeko arduraduna)

Jurgi Bravori (Hípica Urduliz-eko ikastaroetako arduraduna)

Javi Bilbaori (Kultura zinegotzia eta Urdulizko Eusko Pilota taldeko arduraduna)

Diego Izquierdori (Club Balonmano Urduliz Taldeko presidentea)

Jokin Gezuragari (Ipurtats Aisialdi Taldeko arduraduna)